



”Norantz” datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak

Bernard Beñat, B. Oyharçabal, Irantzu Epelde, Jasone J. Salaberria Fuldain

► To cite this version:

Bernard Beñat, B. Oyharçabal, Irantzu Epelde, Jasone J. Salaberria Fuldain. ”Norantz” datu-basea: Aurkezpena eta aditz komunztadurako datuak. 2012. artxibo-00685841

HAL Id: artxibo-00685841

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00685841>

Submitted on 6 Apr 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

NORANTZ DATU-BASEA :
AURKEZPENA ETA ADITZ KOMUNZTADURAKO DATUAK

Beñat Oyharçabal, Jasone Salaberria & Irantzu Epelde
IKER, Baiona

Laburpena

Lan honetan Baionan 2009-2011 bitartean gauzatu den NORANTZ datu-basearen aurkezpena dakargu, bidenabar haren bidez iker daitekeen gramatika puntu bat —pertsona komunztadura anizkuna— testuinguru adierazgarrietan aztertuz. Datu-basearen helburua da Iparraldeko egungo euskal hiztun arrunten gramatika jokabide nagusiak biltzea, eskualde horretako euskara biziaren, edo, bestela adieraziz, honen oinarrian diren gramatikazko joeren irudi bat izateko. Lanaren lehen partean, datu-basearen aurkezpen orokorra egiten dugu, eta hau sortzeko izan diren arrazoiak eta erabili den metodologia azaltzen, datu-basearen mugak erakustearekin batera. Bigarren partean, gramatika ezaugarri abstraktu bati begiratu diogu: pertsona komunztadura anizkuna Iparraldeko egungo hiztunetan zenbateraino gauzatzen den aztertu dugu, euskararen morfojoskeraren ezaugarri nabarmena delako, eta euskararen historian euskalkien arabera molde desberdinetan gauzatu dena.

Hitz gakoak: gramatika aldakortasuna, Iparraldeko hizkerak, pertsona komunztadura.

1. Sarrera

Ahotsezko datuetan oinarritzen den proiektu bat da artikulu honetan aurkezten duguna. NORANTZ deiturapean biltzen da Ipar Euskal Herriko gaurko lekukotasun mintzatuekin Baionako IKER zentroan osatu dugun ahozko corpusa¹. Proiektuaren helburu nagusia da gure garaiko hiztunen azaleko gramatika-ezagutzen irudi bat ematea, ondoko urteetan oinarri bertsuko beste irudiak berdin eginik, denboran aldaketak nola doazen ikusi ahal

¹ Proiektuaren izenburu ofiziala hau da: ‘Projet *Norantz*: Contact de langues et variation linguistique: création d’un observatoire des nouveaux parlers basques’ eta finantzatu duten erakundeak honako hauek izan dira: Akitaniako Eskualde Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta Euskararen Erakunde Publikoa. Iraupena: 2008ko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra. Web interfazea helbide honetan aurki daiteke: www.norantz.org. Ondoko proiektu hauekin loturik ere egin da lan hau: Ministerio de Ciencia e Innovación (FFI2008-01844), Frantziako ANReko ACOBA proiektua (ANR-2010-BLAN-1911-01) eta Fédération Typologie et Universaux Linguistiques (TUL) federazioko *Évolution des structures morphosyntaxiques. Vers une typologie intégrative* proiektua. Bestalde, lanaren lehen idatzaldiari ohar zuzen eta egokiak egin dizkiote Iñaki Caminok eta Koldo Zuazok. Eskerrak eman nahi dizkiegu biei, ekarri diguten laguntzagatik.

izateko.

Begien bistakoa da Iparraldeko gizartean hizkuntzek duten tokiagatik, atertzerik ez duen zirimola baten erdian bizi dela horko euskara aspaldi honetan, eta ateka gaizto horretatik bizirik ateratzekotan pentsatzekoa da nabarituko direla hartan egoera honen ondorioak. Zer gisaz eta zein gramatika ataletan? Hori da, hain zuzen, aldeztu aurretik nekez esan daitekeena, eta NORANTZek ikusgarriago eta ulergarriago egin nahi lukeena.

Ikuspegi honetatik egindako ikerketen beharra sumatu da euskal dialektologian, azken hamarkadetako aldaketa soziologiko eta soziolinguistiko nabarmenek hizkuntzaren egituraren ekar ditzaketen balizko berrikuntzak bildu eta aztertzeko. Baita egonkor iraun duten gramatika atalak zein diren ikusteko ere. Aldaketa soziolinguistiko horien bilakaera kontuan hartzea erabakigarria gertatzen da hizkuntzaren barruko dinamikak ulertzeko. Gauza ezaguna da hizkuntzak, gizarte ekoizpenak diren aldetik, beti aldatuz doazela eta haien ezaugarrietako bat dela denboran etengabe aldaketak izatea (Weinreich 1953), nahiz aldaketa horiek maiz ez diren hiztunen borondatez gertatzen.

Euskararen kasuan, euskalki tradizionalak eta euskara estandarra landu izan dira azken hamarkadetan, baina euskararen errealtate soziolinguistikoa izugarri aldatu da azken hogeita hamar urteetan, ez bakarrik tokien arabera hiztunen kopuruetan gertatu diren gorabeherengatik, baita bestalde euskara gorde dutenen artean ere euskararen transmisioa ez delako orain arteko baldintzetan egin. Horrez gain, hizkuntzaren tinkotasun soziala ikaragarri ahuldu da Euskal Herriko toki askotan, Iparraldean bereziki (Coyos 2008, 2009a, b, 2010a, b; Legarra & Baxok 2005). Zenbat eta bakanago eta urriago izan gizartean hizkuntzaren erabilguneak, orduan eta handiagoak eta ugariagoak izaten dira hizkuntza aldaketak eta hizkuntza ukimenaren ondorioak. Hiztun guztiak elebidun izateak eta gizarte ingurumen nagusiki erdaldun batean bizitzeak ere nahitaezko eragina du hizkuntzaren bilakaeran.

Kanpoko eraginei erantsi behar zaizkie euskaraz azken hamarkadetako aldaketa eta jende mugimenduengatik izan dituen barne dinamika berriak:

Gauza da mendeetan zehar iraun duen bizimodua goitik behera aldatu dela azkenaldian, 1960tik hona gehienbat. Gaur egungo komunikabide eta garraiobideei esker, erraz eta maiz joan ohi gara edozein alderditara, eta gaur egungo hedabideei esker, geure etxetik irten gabe entzun dezakegu edozein alderditako euskaldunen solasa. Zalantzarik gabe, euskara batzea eta berdintzea ekarri du aldakuntza giroak. (Zuazo 2008: 14-15)

Euskararen errealitate linguistikoak gaur egun zer nolako itxura hartu duen ikusteko, eskura ditugu azken soziolinguistika inkestako datuak (Eusko Jaurlaritza, 2008), eta begiratu bat ematea nahikoa, egoeraren larriaz jabetzeko: 2006an, Eusko Jaurlaritzaren inkesta egin zen urtean, Iparraldeko biztanleen %22,5 ziren elebidunak², %8,6 elebidun hartzaileak eta %68,9 erdaldun elebakarrak. Hona hemen datuak, eremuka antolatuta:

	ELEBIDUNEN ETA ELEBAKARREN KOPURUAK IPARRALDEAN (2006)							
	Iparraldea	%	BAM	%	LAPURDI BAM gabe	%	NB eta ZUBEROA	%
Elebidunak	51.800	22,5	8.800	8,8	24.700	25,6	18.200	55,5
Elebidun hartzaileak	19.800	8,6	5.400	5,4	10.900	11,3	3.500	10,7
Elebakarrak	158.600	68,9	86.600	85,8	60.900	63,1	11.100	33,8

1. taula. Elebidunen eta elebakarren kopuruak Iparraldean (2006). Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Biztanleetan ia %70 erdaldun elebakar izateak ikaragarri aldatu du Iparraldeko paisaia linguistikoa orain urte batzuetatik hona. Beherakada nabarmena gertatu da, gainera, ez denbora luzean: hamabost urtean %34,1etik %22,5era jaitsi da euskaldunen kopurua (1991-2006 epean). Ez du aspaldi Iparraldeko hiztun gehienak hizkuntzaz —eta asko baita senez ere— frantsestu zirela. Nahikoa egoera berria da³, bilakaera aldia handizka hartzen badugu: 19. eta 20. mendeetan zehar Frantzia barruan kokatuaz joan da Iparraldea, batez ere administrazioaren eta eskolaren bitartez. Gainera, gogoan eduki behar da historian zehar izan direla Iparraldearen eta Frantziaren arteko lotura sendotu duten gertakariak, horien artean gerrak.

Ematen du hizkuntza baten galtze bidean funtzio informaletan galdu beharko lukeela nekezen (lagunartean, familian; Fishman 2001), baina besterik erakusten du errealitateak. Nola joan da gutxitzen euskararen presentzia funtzio informaletatik? Urteagak (2006: 15), INSEE-k 1999an transmisioaz egindako ikerketa batean oinarrituz, dio beherakada handia izan zela 1955 inguruan jaio zirenen artean (%20k ikasarazi zieten euskara seme-alabei), aurreko belaunaldiaren aldean (1920an jaiotakoen, hots, aurrekoen gurasoen %40k ikasarazi zieten euskara haurrei). Ohargarria da bi mundu gerren artean eta ondotik

² Elebidunen herena 65 urtetik gorakoa da.

³ NORANTZEN parte hartu duen informatzaile zaharrenak 86 urte ditu eta hendaia da. Aita 1885ean jaioa zuen eta Hendaia euskaldun batean hazi zen (1974an hil zen). Bizpahiru belaunalditan gertatu da beherakada.

jaiotakoek zaindu dutela gutxiena euskararen transmisioa. Gertakari historikoez, politikoez eta gizartezkoek, ezinbestean, baldintzatu egiten dute herri baten bilakaera soziolinguistikoa, hiztunen jarrerak barne. Iparraldeko hainbat etxetan ez da arraroa aitama euskaldunetako familietan seme-alabek euskararik ez jakitea edo arrotua izatea. Ez da NORANTZEN ikergaia eta bazterrean utzi ditugu *language shift* edo herdoiltze kasuen azterketa berezituak (Thomason 2001), baina, Iparraldeko paisaia linguistikoaren parte diren neurrian, ezinbestean agertzen dira gure ikerketan honelako profila duten hiztunak:

When people start using the former second language as their primary language (or eventually often as their only language), the result may be different from the majority variety of that language, or the original target of second language acquisition. In immigration contexts we then speak of ethnolects, in postcolonial contexts of new varieties. (Backus 2008: 237)

Bada kontuan hartzeko beste puntu bat ere: ikastolak, gau-eskolek, hedabideek eta bestelako mugimenduek euskara batua ekarri dute euskaltegi, ikastetxe eta komunikabideetara, Iparraldeko batua⁴. Gaurko hiztun euskaldunek, bakoitzak izan duen ibilbidearen arabera, kontaktu gehiago edo gutxiago izan dute euskara estandararekin, eta kontaktu horren bizitasunak zuzeneko lotura du euskalkia gehiago, gutxiago, estandararekin nahasiago edo batere ez erabiltzearekin. Gainera, nahiz indar handiak egin diren euskara suspertzeko, oro har azken 20 urteetan galtzeak aurrera egin du, eta ondorioz atrizio kasuak areagotu egin dira. NORANTZ hizkuntzaren erabilera mota desberdin horiek kontuan hartuz egina izan da, eta egungo hiztunek euskara baliatzean eta beren jakitate abstraktuan dituzten egitura gramatikalen eta fonetikoaren bilduma bat eskaintzen du.

Aurkezpen honetan, Iparraldeko egoera soziolinguistikoa laburki gogoratu ondoan (§1), NORANTZ datu-basearen deskribapena eta haren eratzeko erabili den metodologia aurkeztuko ditugu (§2), baita azalduko ere hura egiterakoan agertu zaizkigun arazo batzuk, edo datuak baliatzerakoan gogoan edukitzekoak diren puntu batzuk. Ondotik, datu-baseko datuak baliaturik, gramatika ezaugarri zehatz bati dagozkion erantzunak aurkeztuko ditugu, hiztunek aditzen pertsona komunztadura gauzatzen dutenetz aztertuz (§3). Azkenik, ondorioak aurkeztuko ditugu lanaren bukaeran (§4).

⁴ Euskal irratiek pisu handia dute Ipar Euskal Herriko euskalgintzan. Gure Irratia-n eta Irulegiko Irratia-n gehienik Lapurdi-Baxenabarreko euskaran izaten dira emankizunak, eta Xiberoko Botza-n, zubereraz.

2. Deskribapena eta metodologia

Gaur egungo hiztunen gramatiketan ager daitezkeen fenomenoen berri izateko, soziolinguistikoki ezaugarri desberdinak dituzten hiztun motak kontuan hartu behar dira. Desberdintasun horretako eragilerik handienak hiru hauek dira: adina, bizitokiaren ingurumena (euskararen gizarte presentzia, Baiona-Angelu-Miarritze hirigunetik kanpo, hiri txikiagoetan eta baserrialdean handiago izanez), eta euskarak eskolatzean izan duen tokia (murgiltze sistema edo ez, Iparraldean).

2.1. Hiztunak

Xede horretan, datu-basea hornitzeko, 59 hiztun aukeratu dira, irizpide horien arabera (adina, bizitokia, euskarak eskolatzean izan duen tokia) 10 azpimultzotan banatuak. Erabakigarria da informatzaileen aukeraketa (Lanza 2008). NORANTZEN, garrantzizkoa da gogoan izatea ez direla hiztun ‘idealak’ bereziki bilatu, baizik eta, irizpide soziologikoei jarraikiz, hiztun arruntak, hots, euskaraz komunikatzeko oinarrizko gaitasuna dutenak. Ezaugarri desberdineko hiztunak hautatzeak hizkuntzaren gaitasunaren aldetik ere profil soziolinguistiko diferenteko hiztunekin lan egitea ekarri du, eta hain zuzen hori zen helburua. Bi lekukorekin gertatu zaigu gutxieneko gramatika gaitasunik ez izatea galdetegiko parte guztiei erantzun ahal izateko, eta hori dela-eta bi informatzaile horien datuak publiko ez egitea erabaki dugu. Taula honetan bildu ditugu elkarriketatu ditugun hiztunen profil soziolinguistikoak (kontuan izan 40 urtetik gorako hiztunik ez dela murgiltze sistemako eskoletan ibili denik):

Hiztun tipoak				
adina	hiraldea		hirixkak eta baserrialdea	
	+murgiltze	-murgiltze	+murgiltze	-murgiltze
+ 70	-	8	-	7
40-60	-	5	-	7
-35	8	2 ⁵	11	11

2. taula. Hiztunen tipologia hiru eragileren arabera.

Sexua ez da irizpide gisa formalki jarri, baina kontuan hartu da, eta gutxi gorabehera erdiak emakumezkoak eta beste erdiak gizonezkoak izan dira. Ohiko euskalkiak ere ez dira

⁵ Zaila da ikastolan ibili gabeko hiztun gazterik hirian aurkitzea. Horregatik dira bi bakarrik gure lekukoetan.

irizpide gisa agertzen, lekuko guztiek ez baitute euskalki bat. Halere, Iparraldeko euskalki nagusi guztietako (zuberera, behe-nafarrera, lapurtera) hiztunak kontuan hartu dira. Euskalkia dutenen kasuan, informazio hori eskaintzen da datu-basean, hiztun bakoitzaren profilari eskaini zaion tartean.

Hiztunen metadatuak biltzeko ez dugu software berezirik erabili, baina datu soziolinguistiko esanguratsuenak biltzeko fitxa bat prestatu genuen eta beraiekin batera bete, besteren artean eskolatzeari, ama hizkuntzari eta hizkuntza gaitasunari buruzko datuekin (ik. eranskina). Lekukoen profilak eskura daude datu-basean bertan, hiztunei eskainitako atalean.

2.2. Galdetegia

Hiztun horien gramatika ezagutza biltzeko, eta haien artean dauden aldaerak agerian emateko, elizitazio molde berak erabili behar dira. Horregatik, galdera berberak egin zaizkie hiztunei, ahoz, galdera guztiei banaka erantzuteko eskatuz, eta erantzunak grabatuz. Grabazioak IKERen egoitzan, lekukoen etxean edo lantokian egin dira Microtrack II grabagailu digitala eta AKG B29L mikrofona erabiliz. Jatorrizko soinu artxiboak ukitu gabe artxibatu dira ordenagailu zentral batean, eta tratatu ondoko soinu artxiboekin eta segurtasun kopiekin prozedura bera segitu da.

Galdetegiak gramatikako atal handienak estaltzen dituzten perpausak biltzen ditu, eta galdera bakoitzak datu zehatz bat bilatzen du. Datuak lortzeko bide nagusi gisa itzulpena baliatu da, hots, perpausak euskarara itzul zitzaten eskatu zaie hiztunei. Elizitabide horrek tradizio luzea du hizkuntzalaritzako lanetan, baina, dakigun bezala, ez ditu alde onak bakarrik, eta uneoro datuak zein teknikaren bidez bilduak izan diren gogoan izan behar du ikertzaileak, itzulpena desegokia izan daitekeen gai batzuetan bereziki (erlatiboak edo baldintza perpausak, adibidez). Itzulpenaren osagarri, guk «ezagutza galdera» deitu duguna ere erabili dugu, hiztunek beraien erantzunetan erabili ez zuten formaren edo egituraren baten berri ba ote zuten jakiteko⁶. Guztira 35 galdera izan dira halakoak galdetegian, eta

⁶ Eman dezagun, aditz morfologiako galdera baten kasua: *Je veux que Beñat vienne avec l'ami de Maialen* (B11). Eta jo dezagun lekukoak honela itzuli duela: *Nahi dut Beñat Maialenen lagunarekin jitea*. Halako kasu baten aurrean, forma jokatugabeaz gain forma jokatu ere ba ote duen jakiteko, euskarazko proposamen hau egin diogu (27. ezagutza galdera). *Nahi duzu denak jin giten / etor gaiten?* (E27). Ahalegindu gara ezagutza galderak tokiko euskararen arabera ematen, horrek arazorik sor ez zezan. Praktikan, 35 baino gehiago izan dira honelako galderak, lekukoaren erantzunaren arabera sarri egin izan baititugu halakoak, galdetegian ez bazetozen ere.

horiei dagozkien erantzunak oharrei eskaini diegun sail berezi baten bitartez bakarrik eskura daitezke.

Galdetegiak 568 galdera ditu morfosintaxiari dagozkionak, eta 178, fonologiari dagozkionak. Lehenbiziko sailean gramatika arrunteko gai nagusietako oinarritzko datuak biltzen dira, eta bigarrenean, berriz, euskarak ez dituen frantses fonemen trataerari buruzkoak (maileguetan), baita, euskarak bai, baina frantsesak ez dituen zenbait fonema edo oposaketari buruzkoak ere (dardarkari edo txistukarietan).

Morfosintaxiko galdetegiak morfologia funtzionaleko datuak bilatzen ditu oroz gainetik, hondarkien eta adizkera jokatuena gainekoak bereziki:

A. IZENAREN MORFOLOGIA

A.1. Hondarkiak	74 galdera
A.2. Erakusleak	7 galdera

B. ADITZAREN MORFOLOGIA

B.1. Solaskiderik gabekoak	56 galdera
B.2. Solaskideen artekoak	32 galdera
B.3. Ahalera	29 galdera
B.4. Irrealisekoak	18 galdera
B.5. Trinkoak	5 galdera
B.6. Partizipioen aspektu morfema	8 galdera
B.7. Alokutiboa	11 galdera

C. JOSKERA

C.1. Izenordainen gauzatzea	54 galdera
C.2. Determinatzailearen gauzatzea	17 galdera
C.3. Mailakatzailerak	7 galdera
C.4. Kuantifikatzaileen numero aditz-komunztadura	20 galdera
C.5. Banaketariak	4 galdera
C.6. Galdegaia	16 galdera
C.7. Galdera perpausak	11 galdera
C.8. Harridura perpausak	4 galdera
C.9. Aditzaren numero komunztadura	8 galdera
C.10. Mendeko perpausak	173 galdera
C.11. Inbertsonalak	9 galdera

D. MORFOFONOLOGIA

5 galdera

F. AHOSKERA

F.1. Frantsesetikako maileguak > euskarak ez dituen fonemak	79 galdera
F.2. Frantsesaren eraginez gal daitezkeen oposaketak	99 galdera

3. taula. Galdetegia.

Galdetegi honetako 746 galderen bitartez lortu diren erantzunak (44.000 pasatxo) erabiltzailearen esku jarri dira sarean, eta horietako bakoitzean klik eginez entzun daitezke. Nahiz euskarazko corpora den NORANTZ, eta beraz corpus elebakarren ezaugarriak eta mugak dituen, tarteka bada perpaus elebidunen bat edo beste, hiztun batzuen erantzunetan badirelako frantseserako lerratzeak. Bere horretan argitaratu ditugu halakoak, hiztun horien solasaren ezaugarria direlakoan. Luzetasun desberdinetakoak izan daitezke lerratze horiek: batzuetan hitzaren mailakoak dira (ad. *force**a ‘indarra’, *restaurant**ilat ‘jate txera’), beste batzuetan sintagmaren mailakoak (ad. *haurrak igorri ditut à l’instituteur** ‘haurrak irakaslearengana igorri ditut’). Ez da alde zuretik pentsatu honelako perpaus elebidunak elizitatzeko galderarik. Besterik gabe transkripzioan delako hitza edo sintagma frantsesa dela seinalatzeko marka bat (izartxo) erabili dugu, eta frantses ortografiaren arabera idatzi.

2.3. Kontuan hartu beharrekoak

Corpus batean oinarritutako ikerketa proiektua da NORANTZ. Corpora eraikitzen hasterako, bi gauza hartu behar dira kontuan: bata, nolako datuak atera eta erabili nahi ditugun, eta bigarrena, nolako azterketak egin ahal izango diren gero datu horiekin, behin corpusa osatua eta bururatua dagoenean. Horiek erabakitzea eta zehaztea izaten da lehenbiziko zailtasuna honelako ikerketetan, eta mugak ongi finkatzea. Garbi esan behar dugu NORANTZEN helburua ez dela izan erkidego oso baten mintzoa biltzea, baizik eta, aurreko atalean azaldu dugun hiztun tipologiaren arabera (§2. taula) eta hizkuntzaren erabilera mota desberdinak kontuan edukiz, egungo hiztunek euskara baliatzean beren jakitate abstraktuan dituzten egitura gramatikalen eta fonetikoaren bilduma bat egitea, eta datu-base batean antolatuta Interneten eskaintzea. Jarraian azalduko ditugu datuak biltzean eta sareratzeko prestatzean sortu zaizkigun arazo batzuk edo datuak baliatzerakoan gogoan

edukitzekoak diren puntu batzuk.

Ahozko corpora da NORANTZ, eta beraz grabazioetan oinarritutakoa. Grabatutako datuak lortzea eta erabiltzea eginkizun konplexua da berez. Baliabideak eta denbora eskatzen ditu. Esperientziak ere zenbat laguntzen duen jakingo du alor lanean ibili den edonork. Ibiliaren ibiliaz joaten dira hobetzen inkestagileen grabatze lanak:

The best way to approach all the tasks involved in recording is as a learning process, where one does not learn everything at once, but rather improves one's understanding over time by trial and error. (Clemente 2008: 190)

Guk ere, arazo teknikoengatik errepikatu egin behar izan dugu galdera bat baino gehiago, are galdetegiko parte oso batzuk zenbaitetan. Halakoetan grabagailua izan da gehienetan arazo iturria, gutxi batzuetan mikrofonoa. Kanpoko zarata grabazioan agertzea saihesteko edo gutxienez apaltzeko, paparreko grabagailua erabiltzeari utzi eta aho-belarrietakora pasatu ginen aski goiz. Emaiza hobe lortu dugu, alde handiarekin. Baldintza akustikoak ez dira beti idealak izan, baina hiztunaren erosotasuna bilatu da beste gauza guztien gainetik; horregatik, grabazio asko lekukoaren etxean egin dira, sukaldean gehienetan. Inoiz, baita lantokian ere. Elkarrizketak egiten hasi aurretik, tarte hartu da elkarrizketatuari zehazki esplikatzeko zer egin behar zuen, eta esan zaio behar zuen astia patxadaz hartzeko ariketa bere kasa burutzeko.

Arazo teknikoez beste, eduki dugun zailtasun handiena metodologikoa izan da. Galdetegi itxia erabiltzeak (ik. 3. taula) eta bereziki itzulpenean oinarritutako elizitabidea hautatzeak nahikoa egoera artifizialean eginarazi dizkigu elkarrizketak. Ariketa luze baten aurrean jartzen genituen informatzaileak, bat-batean erantzun behar baitzuten. Galde-erantzunen pasarteak ez dira inondik ere hizketa libre naturalaren erakusgarri onak, eta halakoen lagin batzuk izateko bestelako bat-bateko jardunak ere grabatu ditugu informatzaileekin. Galdetegiaren bidez lortutako materialaren osagarri gisa eskainiko ditugu testu libre horiek sarean.

Galdetegiaren luzetasunak ere zaildu egin du bilketa, eta beharrezkoa ikusi genuen behin betiko grabazioekin hasi aurretik proba pilotoak egitea, besteren artean diseinatu genuen galdetegia egin ote zitekeen ikusteko. Aditzaren morfologiako parte handienarekin eta joskerako atal batzuekin egin ziren proba pilotoak, 2009ko udaberrian, adin guztietako

16 lekukorekin⁷. Pilotoetan hainbat ariketa mota erabili genituen, adibidez joskerako atalean mendeko perpausetan perpaus nagusia frantsesez uzteko eta mendeko perpausa bakarrik itzultzeko eskatuz, edo galderak egiteko powerpointa erabiliz... Probatutako bitartekoen alderdi txarrak eta onak kontuan hartuz erabaki zen protokoloa eta datu-biltzeko prozedura. Protokolo hori 2009ko maiatzaren 15ean Baionan egin zen mintegi batean eztabaidatu eta finkatu genuen. Euskal Herriko Unibertsitateko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta IKEReko 25 hizkuntzalarik hartu zuten parte mintegi hartan⁸. Galdetegia luzea eta itzulpenean oinarritutakoa dela kontuan hartuz, hiru partetan zatitzea erabaki zen, eta parte bakoitzean morfologiazko, joskerazko eta fonologiazko zatiak tartekatu genituen. Elkarrizketatuari erraztasunak eskaintzea bilatu genuen galdetegia hirutan zatitzearekin, lekukoarentzat astunegia ez izatea, baina alderdi on horrek alderdi txar bat ere baduela ikusi dugu gero, datuen tratamendua eta bilduma zaildu egin dituelako zatikatzeko horrek.

Metodologiari dagokion beste arazo aipagarri bat izan da, erantzunetan, zatika itzultzea edo itzulpenaren zatikako lanari dagokiona. Izan ere, bereziki perpaus luzeenetan, lekuko batzuei nekeza egin zaie perpausa osorik prozesatzea, eta halakoetan parteka joan izan dira itzuli beharrekoa moldatzen. Batzuetan huts garbiak eragin ditu jokabide honek. Adibidez, B89 galderari —(*Peio a repris des forces*). *Avec un peu d'aide, il peut se lever du lit*— honela erantzun zion MAILA lekuko gazteak: *Peiok* (sic) *arra azkartü düzü*. *Lagüngo amiñi batekila ahal düzü ohetik jeikitzen* ‘*Peiok* (sic) berriz bizkortu da. Laguntza pixka batekin ohetik jaiki daiteke’. Ildo beretik, B112 galdera (*Avant les paysans ne pouvaient pas travailler le dimanche*) honela itzuli du XALEZ lekukoak: *Lehenau laborariiek etzuten igandetan lanian artzen al* ‘*lehenago laborariiek* (sic) *ez zuten igandeeetan lanean aritzen ahal*’. Badirudi holako kasuetan, ez beti menturaz, baina batzuetan behintzat, subjektuaren kasuaren eta adizkeraren arteko komunztadurarik eza edo aditz laguntzailearen aukeraketa itzulpena zatika egiteak sortu duela. Konplexutasunaren

⁷ Egitasmoak ezin izango zuen eduki duen bilakaera eduki hamasei adiskide hauen laguntzarik gabe: Florian Bouffaut, Pette Etxekopar, Magi Bimboire, Elisabeth Aguer, Marie Dubroca, Marie Lagand, Hodei Bimboire, Maurice Borthéiri, Etienne Landarretche, Amets Arzallus, Jeronimo Azkue, Abel Linazisoro, Céline Mounole, Maider Bedaxagar, Pantxika Irigarai, Maitena Duhalde eta Jean-Louis Oçafrain.

⁸ Eskerrik zintzoenak hasieratik bidelagun izan ditugun irakasleei, bereziki proiektua abiatzen ari ginela mugikortasun programa bati esker gutartean izan genituen Lourdes Oñederra, Javi Ormazabal eta Myriam Uribe-Etxebarriari ekarri diguten laguntza handiagatik.

aldetik, bereziki nabarmendu behar dira galdetegiko atal hauek: izenaren morfologian, erakusleei dagokiena; aditzaren morfologian, solaskideen arteko adizkiei dagokiena; joskeran, bereziki perpaus erlatiboak, baldintzazkoak eta konparaziozkoak.

Elizitabide gisa itzulpena erabiltzeak sortzen duen efektuaz ere ohartu gara hiztun batzuen erantzunetan. Adibidez, hitzez hitzeko itzulpenak egin dituztenetan, normalean erabiltzen ez dituzten formak emanez. Esaterako, honela euskaratu du JOSA lekuko gazteak C131 perpausa: *Ze erraten al duzu zozokeri bezala! (Qu'est ce que vous pouvez dire comme bêtises!)*. Bat-bateko solasaldi librean, hots, egoera normaletan, ez du horrelako harridura perpausik erabiltzen lekuko honek.

Kontu metodologikoez gain, izan dira interakzioan sortu diren bestelako arazo batzuk ere, interpretazio desberdin batzuk iturrian zituztenak (ikus, adibidez, 18. oin-oharra). Halakoak elkarrizketetan gertatu ahala moldatzen saiatu gara, baina horiek ere aintzat hartu ditugu. Oso kontuan izan behar da galdera bakoitzarekin gramatika puntu jakin bat bilatzen genuela, eta batzuetan delako galderaren bitartez ez dugula neurtu ahal izan bilatzen genuen hura, hiztunak beste bide bat aukeratu duelako.

Bestalde, galdera baten eremutik kanpo ere aurkitzen dira gramatika egitura jakinei buruzko datuak. Adibidez, ergatiboari dagozkion galderetan hiztun guztiek markatu dute ergatiboa, bai singularrean eta bai pluralean, baina gero galdetegian zehar besterik gertatzen da itzulgaian bestelako konplexutasunen bat dagoenean (arreta konplexutasun horretan jartzen dutelako). Eman dezagun, C35 galderan (*Peio n'a pas confiance en lui*), bi lekuko gaztek ez dute ergatiborik markatu (XILAk eta PEOLOk); ergatiboari dagozkion galderetan, berriz, bai.

Goian aipatu ditugunak bezalako metodologia arazo asko inkestak egin ahala agertu dira, horregatik dute alde zureko test piloetok duten inportantzia, galdetegiaren behin betiko bertsioa finkatzeko eta lanaren gida fidagarri bat ziurtatzeko. Gure kasuan, ez dugunez adin bereko hiztunekin lan egin, galdetegia diseinatzerakoan alde zurretik ikusten genuen galderak adinaren arabera egokitzeko beharra. Izan ere, galdera batzuk izan daitezke, erreferentzia kulturalen aldetik, adin talde batentzat egokiak baina beste batentzat erabat desegokiak. Maileguak hartzen baditugu, adibidez, beharrezkoa zen hots edo hots bilkura bakoitzeko kasu bat baino gehiago sartzea galdetegian: adineko batzuek ezin izan dituzte fonologia ataleko *club* (F29), *surf* (F30), *pub* (F31), *rapport* (F52) eta horrelako mailegu berriak euskaratu, ez dutelako ezagutu halakorik. Alderantziz, gazteek nekez itzuli

ahal izan dituzte garai bateko bizimoduari eta bereziki baserri munduari lotutako zenbait mailegu: *zinguerie* (F14), *luzerne* (F15), *sergent* (F37)...

NORANTZ osoki ahozko datuetan oinarritua denez eta sarean kontsultagai dagoenez, aldeztetik informatzaile bakoitzari baimena eskatu zaio bere boza Interneten jartzeko, betiere anonimotasuna gordez. Baimen-agiria idatzizkoa da eta lekukoaren sinadura darama. Prozedura etikoak Frantziako jokabide estandarren arabera erabaki dira (Baude 2006). Badira datu-basean erantzunak duda eta nekezia handiekin eman dituzten hiztunen datuak, huts garbiak ere bai, eta horiek bere horretan argitaratu ditugu, baita forma asmatuak eman dituztenetan ere (ikus, adibidez, B73 galderari XILA gazteak emandako erantzuna⁹). Saiatu gara ahal zela ‘spelling errors’ direlakoak saihesten, erantzuna berriz errepikatzeko eskatuz, baina ez gara oso sistematikoak izan honetan.

Datuak transkribatzeko ere baimena eskatu zaio informatzaile bakoitzari. Izan ere, ahozko datuek badute zailtasun handi bat idatzizkoaren aldean: transkripzioa eskatzen dute. NORANTZEN, transkripzio ortografikoa erabili da, ez estandarra, ez fonetikoa. Estandarra baztertuz, iruditu zaigu fidelkiago ematen genuela lekukoak emandako erantzunaren berri, eta arrazoi horregatik beragatik gorde dugu, transkribatzerakoan, hiztun bakoitzaren barne aldakortasuna: adibidez, C214 galderan *bañon* ‘baina’ dio ALAZI lekuko gazteak, bustidurarekin; hurrengo galderan, C215ean, berriz, *bainon*, bustidurarik gabe. Ordea, salbuespena egin dugu aditzaren morfologian, forma jokatueta morfemak osorik ematerakoan edo gehienez ere parentesiak baliatuz, anbiguotasuna saihesteko asmotan: adibidez, ABE lekuko gazteak *gomitatu itugu* esan du A10 galderari dagokion erantzunean, baina (*h*)*itugu* ‘haugu’ bai baita Iparraldeko formetan, (*d*)*itugu* transkribatzea hobetsi dugu, berak hitz hasierako kontsonantea ahoskatzen ez badu ere.

Transkripzioa baliabide praktikoa da hizkuntza azterketa zehatzak egiterakoan, biderik lasterrena da behar ditugun datuak elkarren segidan ikusi eta ordenatu ahal izateko, audio artxiboa baino egokiagoa azterketa unerako. Turell eta Moyer-ek diote datuen interpretaziorako eta analisirako lehen urratsa transkripzioa dela (2008: 194), eta izatez hala da. Horrenbestez, transkripzio oharrak gure helburuen arabera eginak izan dira, bereziki datuaren fidagarritasunaz argibidea ekartzeko. Bi transkribatzailearen artean egin

⁹ B73. *Mes amis veulent que vous me connaissiez*. «Ene lagünak nahi likezü eni ezagütü züdan». Beste adibide argi bat, tarteko adin multzoko (40-60) euskaldun garbi batena: B72. BERLA: *Beñat veut que je vous vois*. «Beñatek nahi du zu ikus dezadan».

dira corpuseko transkripzio guztiak, eta irizpideak oro har berak izan badira ere, ez datoz beti guztiz bat. Izan badira bi transkripzioen arteko batasuna neurtzeko metodoak (Rietveld & van Hout 1993), baina guk geure 44.000 pasa erantzunetan ez dugu zehatz-mehatz kontrolatu batasun hori. Ideia nagusia izan da transkribatzailearen araberrako aldakortasuna minimora ekartzea, eta horretarako hiztunkako berrikusketa eta orrazketa osoak egin dira datu-basea soinu hornitu ondoren.

3. Datu-baseko ezaugarri baten azterketa: pertsona komunztaduraren gauzapena komunztadura anitzeko adizkeretan

Asko ziren NORANTZ datu-basearen aurkezpen honetan erakusten ahal ziren datu interesgarriak. Adin taldeak konparatuz, bereziki argi da aldaketa batzuk bidean direla, batzuetan doi-doia abiatuak direnak, eta beste batzuetan aurreratuagoak. Egin ditugun ahozko aurkezpenetan, euskararen barneko konbergentzia aldaketa batzuk erakutsi ditugu, hala nola ezetzaren pean diren perpaus osagarrietan *-enik* atzizkia baliatzea (Iparraldean horrelako ingurumenetan ohikoa den *-ela* atzizkiaren ondoan), edo *-gan* eta *-gandik* bezalako morfemak erabiltzea (*baitan* eta *-ganik*-en ondoan). Argi da, bestalde, ez direla konbergentzia fenomeno hauek beti euskara batuak ekarriak, eta Hegoaldeko euskalkien eraginak bestela ere ageri direla. Adibidez, objektu zuzen biziduna datiboan markatzen dute gazteen taldeko hiztun batzuek erantzun batzuetan (absolutiboan egin ordez, oro har Iparraldeko euskalkiek orain arte egin duten bezala¹⁰); halaber, mendebaleko hurbiltze adlatiboaren morfema sartzen hasia bada, ez da forma arautuan (*-rantz*) egiten gehienetan, mugaz beste aldekoengandik berriki entzun duten forman baizik (*-runtz*). Beste aldaketa batzuk ere, dibergentziazkoak hauek, berdin erakutsi ditugu, frantsesarekiko kontaktuak ekarriak batzuetan, berez sortuak besteetan. Lehenbizikoen adibide gisa, IZEN+egin bezalako aditz lokuzioen forma kausatiboak aipa daitezke; haietan, frantsesaren eraginez iduriz, argumentu arazia (*causee* delakoa) osagarri absolutibo gisa tratatzen dute lekuko gehienek (*irri eginarazi nauzu* esanez, beraz). Bigarrenen eredu gisa, gazteen taldeko zenbait hiztunek erabiltzen duten *beri* izenordain indartu datiboa aipa daiteke. Izenordain

¹⁰ Yrizarrek *nuzu & daazu* 'nauzu & didazu', *zitut & dauzut* 'zaitut & dizut' bezalako pareak bildu zituen Baigorri (Yrizar 1999: 64 eta 89). Lehenago, Bonapartek ere Baigorri bi paradigmak aukerakoak zirela seinatu zuen hemeretzigarren mendearen erdialdean, eta holako adibide batzuk jaso zituen (Bizkaiko Foru Aldundiko Bonaparteren ondareko 101. eskuizkribua). Iñaki Camino lankideari zor diogu ohar hau.

hori, itxura guztien arabera, murgiltze sisteman ibili diren gazteen tokiko berrikuntza da, segurenik *bere* izenordain genitiboaren analogiaz sortua (*hari* eta *berari* izenordainen ondoan).

Aipatu aldaera mota horien datuak azaldu behar izan bagenitu, luzeegi joango zitzaigun aurkezpen hau, eta egokiago iruditu zaigu beraz bestelako datu mota bati so egitea. Horrela, NORANTZ datu-baseak eskaintzen dituen datuez irudi bat emateko, euskararen ezaugarri morfosintaktiko abstraktu bat aukeratu dugu, hiztunek komunztadura anitzeko adizkeretan pertsona komunztadura gauzatzen duten ala ez ikertuz. Jakina den bezala, euskarak puntu horretan batasuna eta aniztasuna erakusten du, euskalki guztietan pertsona komunztadura jokarazten baita komunztadura anitzeko adizkeretan, jokabide horiek modu desberdinetan gauzatzen badira ere. Bestalde, egungo joskera lanek garrantzi handia ematen diote komunztaduraren morfologiari perpausaren egitura sintaktikoarekin dukeen loturagatik (Artiagoitia 2000). Gisa horretan barnagoko aldaketa batzuen adierazbide ere izan daitezke aditzaren jokaeran gerta daitezkeen aldaketak. Uste dugu, beraz, bide egokia eskaintzen duela aditz komunztadurak euskararen funtzio morfologiaren atal inportante bat egungo Iparraldeko hiztunetan nola agertzen den ikusteko.

Pertsona jokabidea aditz mota guztietan molde bertsuan agertzen den arren, badakigu hari zuzenean ez dagozkion beste zenbait faktorek eragina izan dezaketela hartan, hala nola aditz laguntzailearen hautapenak, eta baita aspektu-aldietako eta zenbait modutako kontuek ere. Alabaina, elementu hauek ere adizkeraren morfologiako osagaiak diren neurrian, komunztadurako morfemekin konbinatu behar dute, eta konbinatze horren ondorio dira aditz paradigmak. Funtsean, literatura euskalkietako eta euskara estandarreko ez-oraineko adizkeretan ikus daiteke hori, orduan DS ergatiboarekiko komunztadura morfema, oraineko formetan atzizki dena, aurrizki izaten baita. Nahiz lotura hori aski garbia den NORANTZek eskaintzen dituen aldaketako datuen arabera —hala iruditzen zaigu bederen—, ikergaia mugatzeko eta korapilo trinkoegietan ez sartzeko, aurkezpen honetan ez dugu hortik bideratuko gure azterketa, komunztadurari berari bakarrik begiratuko baitiogu hemen.

Arrazoi horregatik beragatik, ez dugu aztertuko nola gauzatzen dituzten hiztunek komunztadurako morfemak, eta bereziki adizkeretan hartzen duten tokia. Badakigu, aspaldi aldaketa leku izaten direla puntu horiek euskararen, ezen gure eskuetara heldu

lehenbiziko euskal gramatiketan beretan agertzen zaizkigu gisa horretako aldaeren lekukotasunak.¹¹ Xehetasun handiegitan sarraraziko gintuen holako gorabeherei behatzeak, eta gainerako puntuak baztertuz, puntu bati bakarrik so egin diogu: pertsonari dagokion komunztadura markatua den edo ez.

Komunztadura anizkuna da euskaraz, eta morfosintaxiaren arabera antolatua. Datuak ere, halaber, elementu horiei jarraikiz aztertuko ditugu. Halere, komunztadura markatze guztiek ez dute neurri berean aldaketa leku izateko aukera, eta hauek bereziki interesekoak dira guretzat hemen. Horregatik, subjektu absolutiboarekiko komunztadura bazterrean utziko dugu, ez baitugu uste hartan direla jokabide berriak agertzekoak. Halaber, arrazoi beragatik, objektua 3. pertsonakoa duten adizkera iragangaitzetako pertsona komunztadura datuak ere (*dut, dezadan, nuen, nezan...*) ez ditugu ikertuko. Ondoko komunztadura markatzeak kontuan hartuko ditugu, beraz:

- Solaskideen arteko harreman zuzena adierazten duten adizkeretako DS ergatiboarekiko pertsona komunztadura;¹²
- DS datiboarekiko pertsona komunztadura (ZER-NORI-NORK eta NOR-NORI adizkeretan);
- Objektu zuzenarekiko pertsona komunztadura (objektua 1. edo 2. pertsona duten NOR-NORK adizkeretan).

3.1. Pertsona komunztadura ergatiboa

Solaskideen harremana zuzenean adierazten duten adizkera monotransitibo eta ditransitiboetan, ergatiboaren komunztadura egiten den edo ez erakustera eman dezaketen 34 elizitazio perpaus dira datu-basean. Beraz, 2.006 erantzun (34x59) bil zitezkeen datu hori eman zezaketenak. Ez dago esan beharrik erantzun guztiak ez direla horrelakoak izan: 1644 erantzun halakoak gertatu dira, eta 362 erantzun eman dira komunztadura ergatiboa egiten den edo ez ikusteko biderik ematen ez dutenak.

¹¹ Horrela, Allières (1985), Urteren gramatika zaharra ikertuz, euskal aditzaren polimorfismoaz aritu zen. Larramendiren gramatikan ere (1729) aurkitzen da polimorfismo horren adibide garbirik.

¹² Solaskideen arteko adizkerak hauek dira: batetik, objektua eta subjektua 1. eta 2. pertsonak dituzten NOR-NORK adizkerak; bestetik, zeharkako objektua eta subjektua 1. eta 2. pertsonak dituzten ZER-NORI-NORK adizkera ditransitiboak.

1.644 erantzun horien artean 18 dira ergatiboaren komunztadura erakusten ez dutenak. Oso gutxi dira, beraz, inkestaren baldintzak kontuan hartuz gero, bereziki. Gisa horretan zaila da hiztunetan bereizi diren adinaren arabeko taldeen artean bereizkuntzarik egitea, eta esan daiteke gaurko Iparraldeko hiztunek komunztadura ergatiboa atxikitzen dutela aditzaren jokaeran, gazteek ere bai.

Ondorio hauek zehazkiago agertzeko, adizkera datibodunak eta datiborik gabeak bereiziko ditugu hemen. Lehenik, solaskideen arteko ZER-NORI-NORK saileko formak ikusiko ditugu, hau da [-pA_+pD_+pE] ezaugarria duten elizitazio perpausei dagozkien erantzunak.¹³ Gero, NOR-NORK sailekoak aurkeztuko ditugu, hots [-pA_+pE] ezaugarria dutenak.¹⁴

3.1.1. Komunztadura ergatiboa adizkera ditransitiboetan

Datu-baseak 18 elizitazio perpaus ditu [-pA_+pD_+pE] ezaugarria dutenak, hots, argumentu datiboa eta ergatiboa 1. eta 2. pertsonakoak dituzten adizkera ditransitiboak. Perpausak egitura horretan aise ager daitezkeen aditzak erabili dira horretarako: *apporter, donner, raconter, offrir, dire quelque chose à quelqu'un...* Hauek dira hiztunei euskaraz esateko eskatu zaien elizitazio perpausak (irakurlearen lagungarri, elizitazio perpausaren ondotik erantzun gisa ager zitekeen adizkera bat euskara batuan ematen dugu):

B78 — Je vous ai apporté les papiers de la voiture ce matin. ‘... *ekarri dizkizut.*’

B79 — Vous m'avez donné le livre de mon frère. ‘... *eman didazu.*’

B80 — En ce temps là, je vous donnais un baiser tous les jours. ‘... *ematen nizun.*’

B81 — Il y a bien longtemps, vous me racontiez des histoires tous les soirs. ‘... *kontatzen zenizkidan.*’

B82 — Maialen veut que je vous porte le livre à la maison. ‘... *ekar diezazudan.*’

B83 — Peio souhaite que vous me donniez l'argent ce matin. ‘... *eman diezadazun.*’

B84 — L'an dernier, vous vouliez que je vous vende ma voiture. ‘... *sal niezazun.*’

¹³ Datu-basean 1. eta 2. pertsona duten formek [+p] ezaugarria dute eta 3. pertsonakoek [-p]. Ezaugarri horiei kasuaren arabeko zehaztasuna lotzen zaie, alegia A (absolutiboa), D (datiboa) edo E (ergatiboa). Beraz, [+pA] ezaugarriak 1. edo 2. pertsonako komunztadura absolutiboa adierazten du, eta [-pE] ezaugarriak, berriz, 3. pertsonako komunztadura ergatiboa. Bestalde, adizkera berean agertzen diren ezaugarriak beheko marraren () bidez markatzen dira. Horrela, [+pA_+pE] ezaugarria duten adizkerak, 1. eta 2. pertsonako indize absolutiboa eta ergatiboa dituzten NOR-NORK adizkerak dira; [-pA_+pD] ezaugarria dutenak, berriz, hirugarren pertsonako komunztadura absolutiboa eta 1. edo 2. pertsonako komunztadura datiboa dituzten NOR-NORI adizkerak dira.

¹⁴ Kontuan har bedi elizitazio perpausen arabeko ezaugarriak direla. Badaiteke ezaugarri horri dagozkion erantzunetan ez agertzea, edo, alderantziz, beste ezaugarri bat duen elizitazio perpaus baten erantzunetan agertzea. Hauek ez ditugu kontuan hartzen hemen, datu-basearen antolamendutik ez urruntzeko.

- B85 — Avant, Peio ne voulait pas que vous me racontiez des mensonges. ‘... *gezurrik erran zeniezadan*.’
- B86 — Maialen préférerait que vous me portiez des biscuits de la maison. ‘... *ekar diezazkidazun/zeniezazkidan*.’
- B87 — Donnez-moi ce livre! ‘... *emaidazu*.’
- B88 — Racontez-moi des histoires! ‘... *konta iezazkidazu*.’
- B114 — Moi également, je peux vous donner un peu d'argent. ‘... *eman diezazuket*’ edo ‘... *ematen ahal dizut*.’
- B115 — Vous avez ma permission. Vous pouvez me dire la vérité sans crainte. ‘... *erran diezadakezu*’ edo ‘... *erraten ahal didazu*.’
- B116 — J'avais assez d'argent. Je pouvais vous en donner un peu. ‘... *eman niezazukeen*’ edo ‘... *ematen ahal nizun*.’
- B128 — Si à ce moment-là vous m'aviez parlé à moi, je vous aurais donné un peu d'argent. ‘... *emanen nizun*.’
- B130 — Si ce jour là je vous avais offert de l'or, à moi aussi vous m'auriez parlé d'une autre manière. ‘... *eskaini banizu*.’
- B132 — Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité. ‘... *erran zeniezadake*’ edo ‘... *erranen zenidake*.’
- B133 — Si je vous payais le voyage, vous iriez en Amérique. ‘... *paga baniezazu*, ...’ edo ‘... *pagatzen/pagatuko banizu*...’.

Zerrenda horri behatuz, ikus daiteke aditz laguntzaile desberdinak (aditz nagusi aspektudunak edo aditzoina eskatzen dutenak) eta aldi desberdinak bidera ditzaketen elizitazio perpausak direla: orainaldikoak (B78, B79, B82, B83, B86, B87, B88, B114, B115), iraganaldikoak (B84, B85, B116, B128), eta alegialdikoak (B132, B133); edo modu markaturik gabekoak (B78, B79, B80, B81), subjuntibokoak (B82, B83, B84, B85, B86), ahalerakoak (B110, B111, B114, B115, B116), aginterazkoak (B87, B88), baldintza irrealekoak (B130, B132, B133). Beraz, hiztunek baliatzen dituzten paradigma desberdinetan kontrolatzen ahal dira komunztadura ergatiboari dagozkion datuak. I taulan ikus daitezke galderaka eta hiztun multzoka datu-baseak eskaintzen dituen datuak.

I taula: Pertsona komunztadura ergatiboa [-pA_+pD_+pE] aditz ditransitiboetan

	KMZ ergatiboa bai				KMZ ergatiboa ez				Ezin jakin				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B78	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B79	14	11	32	57	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	2	59
B80	15	12	31	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B81	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B82	12	8	15	35	ø	ø	ø	ø	3	4	17	24	59
B83	13	6	9	28	ø	ø	1	1	2	6	22	30	59
B84	11	6	8	25	ø	ø	ø	ø	4	6	24	34	59
B85	9	3	8	21	ø	ø	ø	ø	6	8	24	38	59
B86	10	5	11	26	1	ø	1	2	3	7	21	31	59
B87	15	11	28	54	ø	ø	ø	ø	ø	1	4	5	59
B88	15	11	22	48	ø	ø	ø	ø	ø	1	10	11	59
B114	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B115	15	11	32	58	ø	1	ø	1	ø	ø	ø	ø	59
B116	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B128	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B130	15	11	32	58	ø	1	ø	1	ø	ø	ø	ø	59
B132	15	12	31	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B133	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
Orot.	249	180	1	880	1	2	4	7	18	34	123	175	1062

4. taula. Pertsona komunztadura ergatiboa [-pA_+pD_+pE].

Taulari behatuz, irakurleak ikus dezake oso manera erregularrean egiten dutela hiztunek komunztadura ergatiboa aditz ditransitiboetan. Datua ezin ikusizkoa egin duten erantzunak, pentsa daitekeen bezala, elizitazio perpausak subjuntiboa bideratzen dutelarik agertzen dira (B82, B83, B84, B85, B86). Alabaina, hiztun anitzek, gazteen taldean bereziki, forma jokaturgabea (aditz-izena) erabilirik erantzun dute orduan. Neurri ttipiagobatean, hala gertatzen da aginterazko elizitazio perpausetan ere (B87, B88), hauetan ere forma jokaturgabeak erabili baitituzte gazteen taldeko hiztun zenbaitek.

Orotara adizkera ditransitibo jokaturia duten 887 erantzunetan (1062-175) 7 kasutan agertzen da komunztadura ergatiboa egiten ez duen adizkera, %1 baino gutxiago, hots. Huts baten ondorioa izan daiteke. Adibidez, adina duten taldeko LOUSEN hiztunak, *‘Maialenek nai luke zuk bixkotxak ekar ditzan, zuk eni’* erantzun du (B86), seguraz ere huts eginik bere erantzunean. Halaber, iduri luke hala gertatu dela aspaldian hirian bizi izanik eta bere hurreko euskara zerbait herdoildua izanik, euskara batuko formak ere batzuetan erabiltzen dituen Koba hiztunaren kasuan (40-60 urteko hiztunen taldekoa). *‘(Vous avez ma permission.) Vous pouvez me dire la vérité’* elizitazio perpausa (B115) iraganaldia

erabilirik eman du euskaraz ‘(Bazenuen ene baimena.) Egia erraiten al zidaten’ esanez, eta DS ergatiboarekiko komunztadura markatu gabe. Beste batzuetan, adizkera segurtatu gabeak dituzten hiztunetan, komunztadura ager daiteke, baina ingurumen morfologiko ohiz kanpoko batean. Horrela, ‘*Peio souhaite que vous me donniez l’argent ce matin*’ elizitazio perpausa, (B83) ‘*Peiok nahi dizü zük eman deizian sosa goiz untan*’ eman du euskaraz XILA gazteen taldeko lekukoak. Nahiz, itxuraz bederen, ‘deizian’ adizkera horrek -zü komunztadurako morfema baduen, adizkera jokatuaren osamoldea ez da guztiz argia. Dena den, gorago esan bezala, guztiz bazterrekoak dira komunztadura ergatiborik gabeko formak paradigma ditrantsitiboetan, eta bat edo beste haietatik kenduz edo haiei gaineratuz, deus funtsezkorik ez da aldatzen ikuspegi orokorrean.

Orain, ikus dezagun komunztadura ergatiboa markatua ote den NOR-NORK saileko solaskideen arteko paradigmatan.

3.1.2. Pertsona komunztadura ergatiboa aditz monotrantsitiboetan

Datu-baseak 16 elizitazio perpaus ditu [+pA_+pE] ezaugarria dutenak, hots, subjektua eta objektu zuzena 1. eta 2. pertsonakoak dituzten adizkera monotrantsitiboak ekar ditzaketenak. Hona 944 (16x59) erantzun ekartzen ahal zituzten elizitazio perpausen zerrenda (ondoan xedatua den erantzuna, euskara batuan emanik):

- B68 — Je vous vois. ‘*Ikusten zaitut*’.
 B69 — Vous me connaissez. ‘*Ezagutzen nauzu*’.
 B70 — Avant, je vous voyais tous les jours. ‘... *ikusten zintudan*’.
 B71 — En ce temps là, vous me connaissiez bien. ‘... *ezagutzen ninduzun*’.
 B72 — Beñat veut que je vous voie. ‘... *ikus zaitzadan*’.
 B73 — Mes amis veulent que vous me connaissiez. ‘... *ezagut nazazun*’.
 B74 — Avant, vous préféreriez que je vous voie tous les jours. ‘... *ikus zintzadan*’.
 B75 — En ce temps là, je voulais que vous me voyiez tous les jours. ‘... *ikus nintzazun*’.
 B76 — Je voudrais que vous m’invities au restaurant. ‘... *gomita nezazun/nintzazun*’.
 B77 — Emmenez-moi au restaurant! ‘*Eraman nazazu ...*’.
 B106 — (Ne bougez plus.) Maintenant je peux vous voir. ‘... *ikus zaitzaket*’ edo ‘*ikusten ahal zaitut*’.
 B110 — De là où j’étais, je pouvais vous voir, mais pas facilement. ‘... *ikus zintzakedan*’ edo ‘*ikusten ahal zintudan*’.
 B111 — De là où vous étiez, vous pouviez nous voir tous. ‘... *ikus gintzakezun*’ edo ‘*ikusten ahal gintuzun*’.
 B129 — Si hier j’avais apporté les livres, vous m’auriez invité au restaurant. ‘... *gomitatuko ninduzun*’ edo ‘... *gomitatu nindukezun*’.

B131 — Si demain vous veniez jusqu'à Cambo à pied, après je vous inviterais au restaurant. ‘... gomita zintzaket’ edo ‘... gomitatuko zintuzket’.

B134 — Si demain vous m'invitez à un tel restaurant, je vous parlerais autrement. ‘... gomita banintzazu’ edo ‘... gomitatzen baninduzu’.

Ikus daitekeen bezala, elizitazio perpaus horietan ere batzuek modu berezia dute: subjuntiboa (B72, B73, B74, B75, B76), agintera (B77), ahalezkoa (B106, B110, B111), besteek, ez (B68, B69, B70, B71); bestalde, aldiak ere aldatzen dira, orainaldiko (B68, B69, B72, B77, B106), iraganaldiko (B70, B71, B74, B75, B110, B111) edo alegialdiko (B76, B129, B131, B134) adizkerak xedatuak baitira.

II taula: Pertsona komunztadura ergatiboa aditz trantsitiboetan;

	KMZ ergatiboa bai				KMZ ergatiboa ez				Ezin jakin				OROT.
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	
B68	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B69	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B70	15	12	31	58	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	59
B71	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B72	10	4	7	21	ø	1	ø	1	5	7	25	37	59
B73	7	3	8	18	1	ø	1	2	7	9	23	39	59
B74	8	3	6	17	1	1	1	3	6	8	25	39	59
B75	9	6	7	22	ø	ø	1	1	6	6	24	36	59
B76	15	5	11	31	ø	1	1	2	ø	6	20	26	59
B77	15	11	27	53	ø	ø	ø	ø	ø	1	5	6	59
B106	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B110	15	12	31	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B111	15	11	32	58	ø	ø	ø	ø	ø	1	ø	1	59
B129	14	12	32	58	ø	ø	ø	ø	1	ø	ø	1	59
B131	15	12	31	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B134	15	11	32	58	ø	ø	ø	ø	ø	1	ø	1	59
Orot.	213	150	383	746	2	3	6	11	25	39	123	187	944

5. taula. Pertsona komunztadura ergatiboa aditz trantsitiboetan.

5. taulak erakusten ditu datu-basean bildu diren erantzunen datuak. Han ikus daiteke aditz trantsitiboetan ditugun ondorioak aditz ditransitiboetan aurkitu ditugunen arabera direla: hauetan ere hiztunek komunztadura ergatiboa errespetatzen dute. Erantzun bilduetan (944), 757k adizkera jokatu dute (944-187), eta hauen artean 11 dira komunztadura ergatiboa egiten ez dutenak, hots, %1,5era ez dira heltzen (11/757).

Komunztadurarik eza paradigma batzuetako komunztadura jokoak menderatzen ez dituzten zenbait hiztun bakarrekin baizik ez da gertatzen, eta erregulartasunik gabe.

Adibide gisa, XILA gazteen taldeko hiztunak B75 elizitazio perpausari (*‘En ce temps là, je voulais que vous me voyiez tous les jours’*) ematen dion erantzuna har daiteke: *Denbo hoietan nik nahi niziün zük ikhus nezan egün oz*. Ikus daiteke hiztunak ez duela ergatiboaren indizea sartu aditzean eta objektuarekiko komunztadura baizik ez duela egiten (*nezan*). Ohartzekoa da jokabide hori bera erabiltzen dutela alegialdian eta iraganaldian beste bi hiztunek: MOBA hiztunak (40-60 urtekoen taldekoa) B76 elizitazio perpausean (*‘je voudrais que vous m’invitez au restaurant’*) *Nahi nuke zuk komita nezan ostatura* erantzun du, eta MAILA hiztunak (gazteen taldekoa) *Nahi nikezü restaurant*ilat khümit nezen*. Horiek ikusiz, badaiteke morfologia mailako nahasbide baten ondorioz gertatzea komunztadurarik eza (-za- aditzerroa eta zu pertsona morfema bateraturik edo).

Ordea, esan dezagun berriz ere guztiz bakartuak direla horrelako datuak erantzunetan, eta elizitazio bideak kontuan hartuz (bat-bateko itzulpena, zerrenda efektuak eta akidurak sorraraz ditzakeen nahasmenduekin) gehiegikeria litzateke zenbait hiztunek komunztadura ergatiboa galtzen ari dutela, edo aukerakoa dutela, datu horietatik ateratzea. Badirudi arazoa hiztun batzuek morfologiazko konplexutasuna zenbait paradigmatan kudeatzeko duten zailtasunagatik gertatzen dela.

3.2. Pertsona komunztadura datiboa

Gauza ezaguna da pertsona komunztadura datiboa aukerakoa izaten dela Iparraldeko ohiko euskalkietan, nahiz aukera hori ez den beti molde berean agertzen. Aditz ditrantsiboetakoa eta NOR-NORI aditzetakoa, adibidez, (*dizut* vs *natzaizu*), ez dira maila berean ezartzekoak. Bestalde, NOR-NORI adizkeren artean ere, bereiztekoak dira, alde batetik, subjektu absolutiboa 1. edo 2. pertsonakoa izan dezaketenak (*mintzatu natzaizu*), eta 3. pertsonakoa ohi edo behar dutenak (*iduritzen zait*). Pertsona komunztadura datiboari dagokion aurkezpen honetan, ondoko bereizketa egingo dugu, beraz:¹⁵

- Aditz ditrantsitiboak: [-pA_+pD_+pE] ezaugarria dutenak (18 perpaus) edo [-pA_+pD_-pE] ezaugarria dutenak (2 perpaus);¹⁶

¹⁵ Konbinatzeko posibilitate teoriko guztien artean bat falta da, [+pA_-pD] ezaugarriari dagokiona. Holako elizitazio perpausik ez zen sartu NORANTZEN galdetegian, haietan komunztadura jokoak [+pA_+pD] ezaugarria dutenetan bezalatsu egiten direlakoan.

¹⁶ Aditz ditrantsitiboen komunztadura jokoak aztertzeko [-pA_+pD_+pE] ezaugarria duten adizkerak bereziki sartu dira elizitazio perpausetan. Halere, bi perpaus dira, adizkera ditrantsitiboa elizitatuz, argumentu ergatiboa 3. pertsonakoa dutenak eta datiboa 1. edo 2. pertsonakoa (B117, B159), eta hauek ere kontuan hartu

- [+pA_+pD] ezaugarria dutenak (15 perpaus) edo [-pA_+pD] ezaugarria dutenak (2 perpaus);
- [-pA_-pD] ezaugarria dutenak (16 perpaus).¹⁷

Datu-baseko emaitzak aurkezteko, lehenik ikusiko ditugu adizkera ditransitiboak.

3.2.1. Perpaus ditransitiboetako pertsona komunztadura datiboa

20 elizitazio perpaus ditransitibo dira orotara datu-basean zeharkako objektua 1. edo 2. pertsonakoa dutenak: 18 ergatibo [+pE] ezaugarria dutenak, eta 2 perpaus [-pE] ezaugarria dutenak. Erantzunak, beraz, 1.180 (20x59) dira datu-basean. Hona galderen zerrenda, ondoan galdera bakoitzaren ezaugarrien arabera euskara batuan eman daitekeen adizkera dutela.

- B78 — Je vous ai apporté les papiers de la voiture ce matin. ‘... *ekarri dizkizut*’.
- B79 — Vous m'avez donné le livre de mon frère. ‘... *eman didazu*’.
- B80 — En ce temps là, je vous donnais un baiser tous les jours. ‘... *ematen nizun*’.
- B81 — Il y a bien longtemps, vous me racontiez des histoires tous les soirs. ‘... *kontatzen zenizkidan*’.
- B82 — Maïalen veut que je vous porte le livre à la maison. ‘... *ekar diezazudan*’.
- B83 — Peio souhaite que vous me donniez l'argent ce matin. ‘... *eman diezadazun*’.
- B84 — L'an dernier, vous vouliez que je vous vende ma voiture. ‘... *sal niezazun*’.
- B85 — Avant, Peio ne voulait pas que vous me racontiez des mensonges. ‘... *konta zeniezadan gezurrik*’.
- B86 — Maïalen préférerait que vous me portiez des biscuits de la maison. ‘... *ekar diezazkidazun*’ edo ‘... *ekar zeniezazkidan*’.
- B87 — Donnez-moi ce livre! ‘... *Emaidazu ...*’ edo ‘... *Eman iezazkidazu...*’.
- B88 — Racontez-moi des histoires! ‘... *Konta iezazkidazu...*’.
- B114 — Moi également, je peux vous donner un peu d'argent. ‘... *eman diezazuket*’ edo ‘... *ematen ahal dizut*’.
- B115 — Vous avez ma permission. Vous pouvez me dire la vérité sans crainte. ‘... *erran diezadakezu*’ edo ‘... *erraten ahal didazu*’.
- B116 — J'avais assez d'argent. Je pouvais vous en donner un peu. ‘... *eman niezazukeen*’ edo ‘... *ematen ahal nizun*’.
- B117 — Ne mangez pas trop. Cela pourrait vous faire du mal. ‘... *kalte egin ahal liezazuke*’ edo ‘... *kalte egiten ahal(ko) lizuke*’.
- B128 — Si à ce moment-là vous m'aviez parlé à moi, je vous aurais donné un peu d'argent. ‘... *emanen nizun*’ edo ‘... *eman nizukeen*’.

dira datiboaren pertsona komunztaduraren tauletan. Ordea, [-pA_-pD_-pE/+pE] ezaugarria duten elizitazio perpausak (18 datu-basean), hots, datiboa 3. pertsonakoa dutenak, ez ditugu hemengo tauletan sartu, tauletako kopuruak gehiegi ez hantzeko.

¹⁷ Dakigun bezala, hirugarren pertsonako datibo komunztadura markatua da euskaraz. Beraz, [-pD] ezaugarria ere balia daiteke pertsona komunztadura datiboa egiten denetz ikusteko. NORANTZ datu-basean, sail berezia osatzen dute [-pA_-pD] ezaugarria xedatzen duten elizitazio perpausak.

- B130 — Si ce jour là je vous avais offert de l'or, à moi aussi vous m'auriez parlé d'une autre manière. ‘... *eman banizu*’.
- B132 — Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité. ‘... *erran niezazuke*’ edo ‘... *erranen nizuke*’.
- B133 — Si je vous payais le voyage, vous iriez en Amérique. ‘... *paga baniezazu*’ edo ‘... *pagatzen/pagatuko banizu*’.
- B159 — Beñat m'avait menti. ‘... *erran zidan*’.

Hemen ere, ikus daiteke aldi eta modu ezberdinetako adizkerak elizitatuak direla. Nahiz, jakina den bezala, aditz ditransitiboetan datiboaren pertsona komunztadura modu eta toki desberdinetan ager daitekeen, oro har aski aise ikus daiteke adizkeran egiten den edo ez. Alde horretatik, ondorioak nahiko adierazgarriak dira beraz, 6. taulan ikus daitekeen bezala.

III taula: Pertsona komunztadura datiboa aditz ditransitiboetan

	KMZ Datiboa bai				KMZ datiboa ez				Ezin jakin				
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	OROT.
B78	14	11	30	55	1	1	2	4	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B79	15	11	30	56	Ø	Ø	1	1	Ø	1	1	2	59
B80	15	11	29	55	Ø	1	3	4	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B81	12	10	26	48	3	2	6	11	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B82	6	6	4	16	6	2	11	19	3	4	17	24	59
B83	8	5	5	18	5	1	4	10	2	6	23	31	59
B84	5	3	2	10	6	3	6	15	4	6	24	34	59
B85	6	4	3	13	4	Ø	3	7	5	8	26	39	59
B86	5	2	3	10	7	3	9	19	3	7	20	30	59
B87	11	9	24	44	4	2	4	10	Ø	1	4	5	59
B88	11	8	21	40	4	3	3	10	Ø	1	8	9	59
B114	15	11	32	58	Ø	1	Ø	1	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B115	8	10	26	44	7	2	6	15	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B116	15	12	32	59	Ø	Ø	Ø	Ø	Ø	Ø	5	5	59
B117	14	12	26	52	1	Ø	1	2	Ø	1	6	7	59
B128	14	11	32	57	Ø	1	Ø	1	1	Ø	Ø	1	59
B130	14	8	27	49	1	4	5	10	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B132	5	8	25	38	10	4	7	21	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B133	12	11	28	51	3	1	4	8	Ø	Ø	Ø	Ø	59
B159	15	12	28	55	Ø	Ø	2	2	Ø	Ø	2	2	59
Orot.	220	175	433	828	62	31	77	172	18	34	130	182	1180

6. taula. Pertsona komunztadura datiboa aditz ditransitiboetan.

Taula horrek erakusten du bildu diren 1180 erantzunetan, 998 (1180-182) direla adizkera jokatu dutenak. Hauek ditugu kontuan hartu behar pertsona komunztadura datiboa aditzean egiten ote den ikusteko. Hauetan 828 alditan agertzen da aditzean datiboari dagokion pertsona, hots, parte handi batean horrelako kontestuetan hiztunek pertsona komunztadura datiboa jokarazten dute.¹⁸ Adin taldeak kontuan hartuz gero, pentsa daitekeen bezala, +70 urte dituztenen artean agertzen da maiztasun txikienarekin komunztadura. Euskalki konbergentziaren ondorio gisa har daiteke datiboaren pertsona komunztaduraren indartze hau. Hona adin taldeen araberrako pertsona komunztadura datiboaren taula:

- +70 urtekoen taldean: 191/252 (%75)
- 40-60 urtekoen taldean: 151/182 (%83)
- -30 urtekoen taldean: 433/510 (%85)

Esan behar da, hemengo kasu batzuetan ere, aditz morfologia segurtatu gabea duten gazteen taldeko zenbait hiztunetan, ez dela beti erraza adizkeretako pertsona osagai morfologikoak zehazki identifikatzea. Eman dezagun B80 elizitazio perpausean (*‘En ce temps là, je vous donnais un baiser tous les jours’*), XILA lekukoak *‘Denboa hortan emaiten teitzün pott bat egün oz’* erantzuna eman du. Argi da erantzun horretan hiztunak bigarren pertsonari dagokion komunztadura egin duela, baina ez dirudi hala egin duenik lehen pertsonarekin. Ordea, ez da hain garbi erantzunean pertsona indizea zein kasuri dagokion. Hiztun gazte horrek elizitazio perpausetako izenordainen erreferentzia modu finkoan atxikitzen ohi baitu bere erantzunetan (solasaldietako interpretazio deiktikorik egin gabe), kontsideratu da ihardespen horretako adizkeran 2. pertsonaren indizea komunztadura datiboari dagokiola frantseseko perpausean bezala. Bistan dena, elizitazio perpausa deiktikoki interpretatu duela suposatuz gero, alderantzizko ondorioa atera behar litzateke (2. pertsonako indizearen bidez komunztadura ergatiboa markatuz, ez datiboa). Gisa oroz, holako kasuak franko marginalak dira paradigma arruntetako adizkeretan.

¹⁸ Hemen ere elizitazio perpausen interpretazio desberdinak egin dituzte hiztunek, batzuek pertsonari frantseseko perpausoko erreferentzia bera atxikiz, besteek aldiz bestelako interpretazioa emanez inkestagileak frantsesez esaten zion perpausari. Adibidez, B78 perpausean (*je vous ai apporté les papiers de la voiture ce matin*) MADON lekukoak *‘goizian ekarriak dituzu otomobillen paperak’* erantzuterakoan, kontsideratu da pertsona komunztadura ergatiboa egin duela (*‘je’* izenordaina *‘zu’* bihurtuz, elizitazioa deiktikoki interpretatuz), eta pertsona komunztadura datiboa, berriz, ez duela egin.

Paradigma markatuetan, berriz, hiztunek adizkerak emateko zailtasunagatik, komunztadura datiboa bera ere hunkia izan daiteke. Horrela, ohar gaitezke erabilera gutxiagoko paradigma markatuetan, subjuntiboari dagozkionetan adibidez, maizago agertzen dela pertsona komunztadurarik eza. Adierazgarria da adizkera horietan agertzen baitira pertsona komunztadura datiborik gabeko adizkerak komunztaduradunak baino kopuru handiagoan (B82, B84, B86). Gainera, kasu horietan ikus daiteke erlatiboki gazteen taldean zaharren taldean baino gehiagotan gertatzen dela komunztadurarik eza (oro har kontrako emaitzak ditugularik, gorago esan bezala). Morfologiako arazo horien lekuko dira zenbait erantzunetan agertzen diren forma ohigabekoak. Adibidez, B132 elizitazio perpausa itzulirik (‘*Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité*’), PIEPA lekukoak (+70 urtekoen taldeko hiztun zuberotarra) hauxe ihardesten du: *Zük ere erran neikezadazüt egia, zuri elhesta banendi egün ooz*. Apodosiaren adizkera laguntzaile ditransitiboan (*neikezadazüt*) ohi ez bezalako toki batean agerrarazten du komunztadura ergatiboaren pertsona indizea (-zü), aurrizki bezala datiboaren pertsona indizea (n-) ematen baitu (eta gero atzizki bezala bi aldiz errepikaturik: -da-...-t). Holako jokoak (indize datiboa aditz aurrizki bihurtzea) ezagunak dira euskal aditzak denboran eta espazioan hartu dituen itxuretan, baina ez dira ohikoak hiztun horren euskalkian, eta beste erantzunetan hiztun berak ergatiboa agerrarazten du beti ez-oraineko adizkera ditransitiboetako aurrizki gisa, ez datiboa. Gazteen taldean paradigmaren kudeatzeko zailtasuna aditz laguntzailearen hautaketan agertzen da bereziki. Adibidez, B86 elizitazio perpausa (‘*Maialen préférerait que vous me portiez des biscuits de la maison*’) honela erantzuten dute gazteen taldeko AKAN eta EHEN lekukoek:

AKAN: *Maialenek naiago luke zuek etxeko bixkotxak ekartzea... ekar zenizkidatela... ez dakit.*

EHEN: *Maialen naiko luke bixkotxak etxetik ekar zenidatzula.*

Bi gazte horiek ikastoletako ikasle ohiak izanik euskara batuaren paradigmaren eragina agertzen da haien erantzunetan. Haatik, aspekturik gabeko aditz lexikala aukeraturik ere (*ekar*), ez dute ohiko eta euskara estandarreko aditz laguntzailearen (**ezan*)

forma bat erabiltzen.¹⁹ Ez da argi, haien kasuan, ezinbestean emanikako forma den eman dutena, ala halako sinkretismo bat sortu den bi aditz laguntzaileen artean.

3.2.2. [+pA_+pD] edo [-pA_+pD] ezaugarriak dituzten NOR-NORI perpausak

Dударик batere gabe, hau bezalako aurkezpen orokor batean erabiltzeko arazo gehienik ematen duten formak dira sail honetako erantzunak. 15 elizitazio perpaus dagozkie datu-basean. Gehien-gehienak (13) ‘parler’ aditza erabiliz eratu dira, *mintzatu* aditzaren bidez, euskaraz [+pA_+pD] ezaugarria duten adizkerak bideratzeko gisan. Beste laurak ‘approcher’ mugimendu aditzaren bidez moldatu dira. Hona, beraz, sail honetako elizitazio perpausak (ondoan ematen ditugun euskara batuko adizkerek erakusten dute ohigabeko adizkerak direla gaurko euskaran):

- B29 — Que les enfants s’approchent de moi! ‘... *hurbil bekizkit*’ edo ‘*hurbil dakizkidala*’.
B58 — Vous vous êtes approché de moi. ‘... *hurbildu zatzaizkit*’.
B59 — Avant, je vous parlais tous les jours. ‘... *mintzatzen / elestatzen nintzaizun*’.
B60 — En ce temps là, vous me parliez souvent de ces sujets. ‘... *mintzatzen / elestatzen zintzaizkidan*’.
B61 — J’ai dû vous parler trop vite. ‘... *mintzatu natzaizuke*’.
B62 — Vous aviez dû me parler trop vite. ‘... *mintzatu zintzaizkidake*’.
B63 — Beñat veut que je vous parle à vous. ‘... *mintza nakizun*’.
B64 — Je voulais que vous me parliez à moi. ‘... *mintza zenkizkidan*’.
B65 — Maddi souhaiterait que vous vous approchiez de moi. ‘... *hurbil zakizkidan*’ edo ‘... *hurbil zenkizkidan*’.
B66 — Parlez-moi plus gentiment! ‘... *mintza zakizkit*’.
B67 — Approchez-vous de moi! ‘... *hurbil zakizkit*’.
B103 — (Le téléphone est réparé.) Peio peut me parler tous les jours. ‘... *mintza dakidake*’ edo ‘... *mintzatzen ahal zait*’.
B128 — Si à ce moment-là vous m’aviez parlé à moi, je vous aurais donné un peu d’argent. ‘... *mintzatu bazintzaizkit*’).
B130 — Si ce jour là je vous avais offert de l’or, à moi aussi vous m’auriez parlé d’une autre manière. ‘... *mintzatuko zintzaizkidan*’ edo ‘... *mintzatu zintzaizkidakeen*’.
B132 — Si à vous aussi je vous parlais tous les jours, vous me diriez la vérité. ‘... *mintza banenkizu*’ edo ‘... *mintzatzen / mintzatuko banintzaizu*’.
B134 — Si demain vous m’invitez à un tel restaurant, je vous parlerais autrement. ‘... *mintza nenkizuke*’ edo ‘... *mintzatuko nintzaizuke*’.

¹⁹ Inkestaren baldintzen ondorioa izan daiteke EHENek perpaus matrizeko subjektuan ergatiboa ez markatzea (ez du iduri topikalizazio kasu markarik gabeko bati dagokiola: *Maialen*). Hiztun horrek normalean ergatiboa markatzen du.

Gainerako adizkeretan bezala, hemen ere modu eta aldi desberdinetako formak ager zitezkeen erantzunetan. 7. taulan ikus daiteke zein izaritan pertsona komunztadura datiboa agertu den erantzunetako adizkeretan.

IV taula: Pertsona kom unztadura datiboa [+pD] diren NOR-NORI aditzetan.

	KMZ Ddatiboa bai				KMZ datiboa ez				Ezin jakin			
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.
B29	0	0	0	0	4	1	2	7	11	11	30	52
B57	1	1	5	7	14	10	17	41	0	1	10	11
B58	0	0	0	0	4	0	1	5	11	12	31	54
B59	5	5	7	17	3	1	2	6	7	6	23	36
B60	7	6	4	17	5	4	9	18	3	2	19	24
B61	8	4	4	16	5	2	10	17	2	6	18	26
B62	5	5	11	21	8	5	9	22	2	2	12	16
B63	0	0	1	1	13	10	8	31	2	2	23	27
B64	0	2	1	3	12	5	8	25	3	5	23	31
B65	0	0	0	0	0	1	0	1	15	11	32	58
B66	4	4	7	17	10	5	9	24	1	3	16	20
B67	0	0	0	0	6	0	2	8	9	12	30	51
B103	9	8	7	24	3	1	1	5	3	3	24	30
B128	1	0	0	1	11	5	13	29	3	7	19	29
B130	1	1	1	3	14	7	13	34	0	4	18	22
B132	0	0	3	3	12	4	9	25	3	8	20	31
B134	6	7	15	28	9	4	4	17	0	1	13	14
Orot.	48	58	87	193	123	65	120	308	84	81	337	502
												1003

ehala ikus daiteke erantzunetan erdiak (502/1.003) ez direla xedatua zen moldea erabiliz eratu. Kasu garbiena ‘approcher’ aditza zeukaten elizitazio perpausetan (B29, B58, B65, B67) agertzen da. Haietan hiztun gehientsuenek ez dute osagai datiborik erabili erantzunetan, haren ordeaz lekuzko kasu bat edo mediatiboa enplegatu baitute. Horrela, lau elizitazio perpaus hauetako 236 erantzunetan 215 kasutan perpausak ez dute pertsona komunztadura datiboa egiten den ikusteko paradarik ematen. Neurri batean, adierazgarria da, halere, gelditzen diren 21 perpausetan bihi batean ere komunztadura datiborik ez dela egin ikustea.²⁰ ‘Parler’ aditza duten elizitazio perpausetako erantzunak desberdinak dira, baina paradigma gutxiago erabiltzen franko nahasiak, eta, gure ustez, ez beti nahi bezain fidagarriak. Paradigma arruntetan gauzak nahikoa argi dira: orduan, gehienetan, *mintzatu* (edo *elestatu*) aditza erabili dute hiztun gehienek, subjektua absolutiboan izanik, eta beste argumentua datiboan (ikus, adibidez, B57). Ordea, paradigma markatuetara pasatzean, hiztun batzuek *hitz egin* bezalako NORK-NORI aditz bat erabiltzen dute, edo ‘*mintzatu*’ atxikiz ere, haren erregimena aldatzen dute. Bestalde, guztiz segurtatu gabea baitute hiztun askok komunztadura egitura hau, arraz zaila da erantzunetan adizkeren kasu morfologia jakitea. Har ditzagun bi adibide, nahiko desberdinak.

Ikus dezagun, lehenik, zaharren taldeko BELU hiztunak (orain Euskal Herrian hirian bizi, eta luzaz Euskal Herritik kanpo bizi izana) ‘*mintzatu*’ aditza jokaturik eman dituen erantzunak:

B57: *Zuri mintzo naiz.*

B59: *Leeno egun guziez mintzatzen nauzun.*

B60: *Denbora hetan gauza hoitaz usu mintzatzen zinautan.*

B61: *Fiteei mintzatu nitzauzu.*

B63: *Beñatek nahi du zuri mintza nain.*

B64: *Nahi nuen eni mintzo zindain.*

B66: *Goxokio mintza zite eni!*

B128: *Orduan eni mintzatu bazine, emanen nautzuen diru pitta bat.*

B130: *Egun hartan urrea ofreitu banautzun, eni ere beste gisalat mintzatuko zinen.*

B132: *Zuri ere egun guziez mintzatzen bainintz, egia jakin nezake.*

B134: *Bihar holako ostaturat gomitatzen baininduzun, beste gisalat mintzo nitazke.*

²⁰ Ohartzekoa da, bestalde, datiboa erabiltzen duten 21 kasuetan, hamalau +70 urteko taldekoen artean agertzen direla.

Ikus daitekeenez, hiztun horrek ‘*mintzatu*’ aditza NOR aditz gisa erabiltzen du. Gehienetan ez du komunztadura datiborik egiten, baina iraganaldian (B59, B60), haatik, bai (baita behin orainaldian ere, B61). Iraganaldiko bi kasuetan adizkerak erabide ditrantsiboen itxura du: *nauzun*, *zinautan* (konpara B128 eta B130 perpausetako bestalde agertzen diren adizkera ditrantsitiboekin). Perpaus horietan hiztunak ez du subjektuari dagokion izenordaina erabili perpausetan, baina halere badirudi NOR-NORI eta ZER-NORI-NORK paradigmatako adizkera horiek bateratu direla haren gramatikan (bestalde, euskal aditzetan ezaguna den fenomeno). Ondorioz, ez bide da arazorik, B59 eta B60 erantzunetako adizkerak NOR-NORI adizkera gisa aztertzeko.

Orain, ikus dezagun gazteen taldeko AIBA lekukoak ‘*mintzatu*’ aditza era jokatuan erabiliz eman dituen erantzunak:

B57: *Zuri mintzo naiz.*

B59: *Leen beti zuri mintzo nitzaizun.*

B60: *Denbora artan neri ortaz añitz mintzo zinen.*

B61: *Sobera fite mintzatu bear nintzen.*

B62: *Sobera fite mintzatu bearko zinen.*

B103: *Peio mintzatzen aal da enekin egunero.*

B128: *Denbora artan neri mintzatu baldin bazinen, diru pixka bat emango nizun.*

B130: *Egun artan urrea oparitu baldin banizun, neri ere beste manera batez mintzatuko zinen.*

B132: *Zuri ere egunero mintzo baldin badizut, egia errango didazu.*

B134: *Biar olako ostatu batetara gomidatzen baldin banauzu, beste manera batez mintzatuko dizut.*

AIBAk *mintzatu* aditza NOR-NORI aditz gisa erabili du erantzun gehienetan, datiboaren komunztadura jokarazirik hiru kasutan bakarrik (B59, B132, B134). Lehenbizikoan (B59), argiki adizkera *ni-zuri* forma bati dagokio, baina ez du iduri hala denik B132 eta B134 erantzunetan. Itxura guztien arabera, hauetan ‘*mintzatu*’ aditza NORK-NORI aditz gisa erabilia da, nekez *dizut* bezalako forma bat NOR-NORI aditz gisa azter baitaiteke (NOR absolutiboaren pertsona marka atzizki gisa agerturik adizkeran).²¹ Ikus daitekeenez, ‘*mintzatu*’ aditzaren erregimena ez da beti NOR aditz batena hiztun

²¹ Erantzunak hala erakusten ez badu ere, elizitazio perpausoko aditz sintagmak modalki markatuak dira: baldintza irrealen protasia (aspektu bukatugabea) B132 perpausuan, baldintza irrealen apodosis B134 perpausuan. Ez da argi horrek eraginik izan duen ‘*mintzatu*’ aditzari besteetan ez bezalako erregimena emateko hauetan.

horrentzat, eta badaiteke komunztadura datiboa agertzearekin aditzaren erregimenaren aldaketa errazago izatea.

Hemen aipatu bi fenomenoak (aditz paradigma batzuen bateratzea, eta ‘*mintzatu*’ aditzaren erregimenaren egongaitasuna zenbait hiztunetan) bakartuak izan balira, aise izango zen NOR-NORI gisa kontu zitezkeen adizkerak besteetatik bereiztea. Ordea, maiz gertatzen baitira fenomeno horiek, kasuistika nahasgarri batean ez sartzeko, taulak eratzerakoan irizpide bakarra erabili dugu, ‘*mintzatu*’ aditzaren erregimen aldaketak kontuan hartu gabe (izenordainak ergatiboa markatzen ez bazuen behintzat). Horregatik, komunztadura datiboa kontatu dugunaldi guztietan ez da segurua *mintzatu* aditza ‘NOR-NORI aditz gisa dela. Seguruenik, komunztadura figura hau taulan agertzen den baino txikiagoa da komunztadura datiboa erakusten duten adizkera horietan, batzuk NORK-NORI aditz gisa erabiliak baitira. Zenbaketak horrela eginik ere, ikus daiteke aise nagusitzen direla adizkera horietan komunztadura datiborik gabeko formak. Komunztadura dutenak %36 dira (169/465) eta komunztadurarik gabekoak %64 (296/465).

3.2.3. [-pA_-pD] ezaugarria duten NOR-NORI perpausak

Ezaguna da absolutiboa hirugarren pertsonakoa duten NOR-NORI adizkerak aiseago erabiltzen dituztela hiztunek. Bestalde, badira aditzak datiboaren komunztadura bideratzea eskatzen dutenak, hauek gehienetan argumentu absolutiboa 3. pertsonakoa eskatzen baitute. Horrelako aditzen komunztadura datiboa kontrolatzeko bidea eskaintzen du NORANTZ datu-baseak, 16 elizitazio perpaus egin baitira ‘*arriver quelque chose à quelqu’un*’ eta ‘*quelque chose tomber des mains de quelqu’un*’ bezalako aditz sintagmez baliaturik, hots, euskaraz komunztadura datiboa eskatzen ohi duten aditzekin. Hona elizitazio perpaus horien zerrenda:²²

B20 — Les fleurs lui sont tombées des mains. ‘... *erori zaizkio*’.

B21 — Les livres leur sont tombés des mains. ‘... *erori zaizkie*’.

B22 — Les fleurs lui étaient tombées des mains. ‘... *erori zitzaizkion*’.

B23 — Les livres leur étaient tombés des mains. ‘... *erori zitzaizkien*’.

B24 — A Maddy aussi, cela a dû lui arriver. ‘... *gertatu zaioke*’.

B25 — A Maddy aussi, cela avait dû lui arriver. ‘... *gertatu zitzaiokeen*’.

²². B20 eta B21 perpausak eta B153 eta B154 perpausak elkarren antzekoak dira oso. Datu-basean, halere, xede desberdina dute perpaus hauek, bigarren pareta adizkera alokutiboen erabilera ikusteko erabili baita. Ez da harritzekoa, beraz, komunztadura datiboari dagokionaz ondorioak franko hurbilak baitira.

- B26 — Beñat ne veut pas que la clé lui tombe des mains. ‘... *eror dakion*’.
- B27 — Beñat ne voulait pas que la clé lui tombe des mains. ‘... *eror zekion*’.
- B28 — Beñat ne voudrait pas qu’il arrive quelque chose à Peio. ‘... *gerta dakion*’ edo ‘... *gerta lekion*’.
- B104 — (Que Peio fasse attention.) Une telle chose peut lui arriver à lui aussi! ‘... *gerta dakioke*’ edo ‘... *gertatzen ahal zaio*’.
- B119 — Si un tel accident était arrivé à Peio hier, son père aurait dit quelque chose à Maddi. ‘... *gertatu balitzaio*’.
- B121 — Si à ce moment là Peio lui avait dit la vérité, cela aurait paru bizarre à Beñat. ‘... *gertatuko zitzaion*’ edo ‘... *gertatu zitzaiokeen*’.
- B123 — Si un jour un tel malheur lui arrivait, Peio demanderait de l’aide à Maddi. ‘... *gerta balekio*’ edo ‘... *gertatzen balitzaio*’.
- B125 — Si Peio racontait une telle histoire à Beñat, le livre lui tomberait des mains. ‘... *eror lekiok*’ edo ‘... *eroriko litzaioke*’.
- B153 — Les papiers lui sont tombés des mains. ‘... *erori zaizkio*’.
- B154 — Les papiers leurs sont tombés des mains. ‘... *erori zaizkie*’.

Aurreko kasuetan bezala, perpaus hauek ere aldi eta modu desberdinetako erantzunak biltzeko gisan eratuak dira: orainaldia (B20, B21, B24, B26, B28, B104, B153, B154), iraganaldia (B22, B23, B25, B119, B121), subjuntiboa (B26, B27, B28), ahalezkoa (B104), alegialdia (B119, B121, B123, B125)...

Orain ikus dezagun ondorioak erakusten dituen taula.

V taula: Pertsona komunztadura datiboa [-pA_-pD] NOR-NORI aditzetan.

	KMZ datiboa bai				KMZ datiboa ez				Ezin interpreta				
	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	Orot.	+70	40-60	-30	orotara	
B20	15	9	27	51	ø	3	5	8	ø	ø	ø	ø	59
B21	15	10	27	52	ø	2	5	7	ø	ø	ø	ø	59
B22	15	11	26	52	ø	1	6	7	ø	ø	ø	ø	59
B23	15	11	27	53	ø	1	5	6	ø	ø	ø	ø	59
B24	15	12	32	58	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B25	15	11	30	56	ø	1	2	3	ø	ø	ø	ø	59
B26	12	4	4	20	ø	6	8	14	3	2	20	25	59
B27	9	5	4	18	2	5	7	14	4	2	21	27	59
B28	7	ø	4	11	5	8	9	22	3	4	19	26	59
B104	12	12	26	50	3	ø	6	9	ø	ø	ø	ø	59
B119	9	5	15	29	4	6	14	24	2	1	3	6	59
B121	5	5	19	29	ø	4	3	7	10	3	10	23	59
B123	13	8	24	45	1	3	7	11	1	1	1	3	59
B125	10	7	25	42	5	4	6	15	ø	1	1	2	59
B153	15	11	29	55	ø	1	3	4	ø	ø	ø	ø	59
B154	15	10	29	54	ø	2	3	5	ø	ø	ø	ø	59
B21	15	10	27	52	ø	2	5	7	ø	ø	ø	ø	59
Orot.	197	131	347	675	20	47	90	157	23	14	75	112	944

8. taula. Pertsona komunztadura datiboa.

Ikus daitekeenez, komunztadura datiboa franko erregularra da paradigma ez-markatueta, ez hainbeste haatik, subjuntibokoetan (B26, B27, B28) eta alegialdietakoetan (B119, B121, adibidez). Horrek indartzen du lehenago ikusi dugun datu bat: datiboaren komunztadura ahultzen da hiztunek nekez menderatzen dituzten paradigmekin. Zenbakiak orokorrean harturik, komunztadura egiten da aski erregulariki: 674/832 (%81). Subjuntiboko perpausetan, berriz, erdietan baizik ez da agertzen komunztadura datiboa: 49/99. Alegialdietako eta subjuntiboko perpausak kentzen badira, komunztadura datiboaren erregularitasuna handitzen da, %90ekoa baita (481/531). Adin taldeen artean ez da halako desorekarik ikusten puntu horretan, seguraz ere, gazteen taldean, gehienek forma jokatu gabea eman baitute perpaus subjuntiboetan. Baina kontsideratzen bada zein taldeetan agertzen diren komunztadura egiten duten adizkerak, ikus daiteke erdiak gutxienez edo gehiago +70 urtekoek eman dituztela, alta hiztunen laurdenak baizik ez direlarik.

Hona hemen komunztadura datiboa duten [-pA_-pD] adizkera subjuntiboak adin taldeen arabera:

- +70 (15 hiztun): 28
- 40-60 (12 hiztun): 20
- -30 (32 hiztun): 12

Argi da, beraz, gazteen taldean gutxi agertzen direla datu-basean [-pA_-pD] adizkera subjuntiboak. Bestalde, agertzen direnean, ez da argi zenbat hiztunek kontrolatzen duten forma. Ikus ditzagun gazteen taldean komunztadura datiboa erakusten duten hamabi erantzunak:

B26 — Beñat ne veut pas que la clé lui tombe des mains.

- *Beñatek eztizü nahi giltza eskütik ior zakion* (MAAL)
- *Beñatek ez du nai gakoa eskuetatik erori zaion* (SEAI)
- *Beñatek ez du nai giltza eskutik eror diezaion* (XAAN)
- *Beñatek eztü nahi giltza eor dakion eskietaik* (NAMAU)

B27 — Beñat ne voulait pas que la clé lui tombe des mains.

- *Beñatek etzizün nahi giltza eskütik ior lekion* (MAAL)
- *Beñatek etzuen nai giltza eskuetatik eror ziezaion* (XAAN)

- *Beñatek etzin nahi giltza ior zakion eskietaik* (NAMAU)
- *Beñatek etzuen nai gakoa eskietaik eror zitzaikon* (KAU)

B28 — Beñat ne voudrait pas qu'il arrive quelque chose à Peio.

- *Beñatek elikezū nahi Peioi zerbait agit lekion* (MAAL)
- *Beñatek ez luke nai Peiori zerbait gerta diezaion* (XAAN)
- *Beñatek elūke nahi zerbait agi dakion Peioi* (NAMAU)
- *Beñatek eztu nai Peiori gauza bat gerta zatzaion* (IBAI)

Aldiei dagozkien gorabeheretan sartu gabe, ageri da erantzunetan zenbait hiztunek paradigma hori nekez menderatzen dutela. Kasu garbiena XAAN hiztunarena da. Hiztun horrek berantean ikasia du euskara eta iduriz zaila zaio komunztadura datiboa agertzean **edin* laguntzailearen adizkiak erabiltzea. Alabaina, goragoko zerrendan ikus daitekeenez, *eror diezaion* (B27) eta *eror ziezaion* (B28) agertzen dira haren erantzunetan, hots **ezan* laguntzailearen formak (datiborik gabeko NOR adizkeretan **edin* erabiltzen du). Beste hiztun batzuen erantzunek ere (SEAI B26, IBAI B28, adibidez), paradigma horrekin agertzen diren arazoak erakusten dituzte.

Dena den, gogoan atxiki bedi gazteen taldean bereziki erantzun gehienak adizki jokatugabe baten bidez eman direla, ez baita harritzeko gisa horretan paradigma markatu gisa gelditzen baitira orduan NOR-NORI adizkera subjuntibo hauek.

3.3. Objektu zuzenaren pertsona komunztadura

NORANTZ datu-baseak 17 elizitazio perpaus ditu objektu zuzenaren pertsona komunztadura xedatzen dutenak. Dakigun bezala, objektu zuzenaren pertsona komunztadura ez da aukerakoa euskaran, baina gerta daiteke batzuetan, Hegoaldeko euskalkien eraginez seguraz ere, objektu zuzen hori absolutiboan agertzeko ordeztatiboan agertzea (orduan aditzean komunztadura datiboa izanik). Aldaketa hori, hain zuzen, objektu zuzena pertsona denean gertatzen da. Beraz, bi elementu ditugu ikusteko hemen: objektu zuzenarekiko komunztadura egiten ote duten hiztunek, eta, egiten dutenean, absolutiboan ala datiboan egiten duten.

Lehenik ekar dezagun elizitazio perpausen zerrenda; erabilera trantsitiboa eta objektutzat pertsonak aise hartzen dituzten aditzen inguruan sortuak dira: *‘voir, connaître, emmener, inviter’*:

- B68 — Je vous vois. ‘*Ikusten zaitut*’.
- B69 — Vous me connaissez. ‘*Ezagutzen nauzu*’.
- B70 — Avant, je vous voyais tous les jours. ‘... *ikusten zintudan*’.
- B71 — En ce temps là, vous me connaissiez bien. ‘... *ezagutzen ninduzun*’.
- B72 — Beñat veut que je vous voie. ‘... *ikus zaitzadan*’.
- B73 — Mes amis veulent que vous me connaissiez. ‘... *ezagut nazazun*’.
- B74 — Avant, vous préféreriez que je vous voie tous les jours. ‘... *ikus zintzadan*’.
- B75 — En ce temps là, je voulais que vous me voyiez tous les jours. ‘... *ikus nintzazun*’.
- B76 — Je voudrais que vous m’invities au restaurant. ‘... *gomita nazazun*’ edo ‘... *gomita nintzazun*’.
- B77 — Emmenez-moi au restaurant! ‘*Eraman nazazu ...*’.
- B106 — (Ne bougez plus.) Maintenant je peux vous voir. ‘... *ikus zaitzaket*’ edo ‘... *ikusten ahal zaitut*’.
- B110 — De là où j’étais, je pouvais vous voir, mais pas facilement. ‘... *ikus zintzakedan*’ edo ‘... *ikusten ahal zintudan*’.
- B111 — De là où vous étiez, vous pouviez nous voir tous. ‘... *ikus nintzakezun*’ edo ‘... *ikusten ahal ninduzun*’.
- B129 — Si hier j’avais apporté les livres, vous m’auriez invité au restaurant. ‘... *gomitatu ninduzun*’ edo ‘... *gomitatu nindukezun*’.
- B131 — Si demain vous veniez jusqu’à Cambo à pied, après je vous inviterais au restaurant. ‘... *gomita zintzaket*’ edo ‘... *gomitatu zintuzket*’.
- B134 — Si demain vous m’invities à un tel restaurant, je vous parlerais autrement. ‘... *gomita banintzazu*’ edo ‘... *gomitatzen/gomitatu baninduzu*’.
- B157 — Beñat m’a vu. ‘... *ikusi nau*’.²³

Aurrekoetan bezala aldi eta modu desberdinetako perpausak sartu ditugu: orainaldia (B68, B69, B72, B76, B77, B157); iraganaldia (B70, B71, B73, B74, B75, B110, B129; alegialdia (B76, B129, 131, B134), subjuntiboa (B72, B73, B74, B75), agintera (B77), ahalera (B106, B110, B111).

Erantzunetan, lehen aipatu bi fenomenoek behatzea komeni da: objektuari dagokion pertsona komunztadura jokatzen den, eta objektua zer kasutan agertzen den. 9. taulan ikus daitezke objektuaren komunztadura markatzen duten erantzunen kopuruak.

²³ Galdera hau forma alokutiboen saileko elizitazio perpaus gisa baliatu da.

VI taula: Objektu zuzenaren pertsona komunztadura.

	Bai objektua absolutiboa				Bai objektu datiboa				Ez objektu absolutiboa				Ez objektu datiboa				Ezin jakin				OROT
	+70	40-60	-30	orot	+70	40-60		orot	+70	40-60	-30	orot	+70	40-60	-30	orot	+70	40-60	-30	orot	
B68	15	12	32	59	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B69	15	12	30	57	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	59
B70	15	9	27	51	ø	1	4	5	ø	1	ø	1	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	2	59
B71	14	10	22	46	ø	2	7	9	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	1	ø	2	3	59
B72	10	4	7	21	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	2	ø	ø	ø	ø	5	7	24	36	59
B73	7	3	8	18	1	ø	ø	1	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	7	9	23	39	59
B74	6	4	5	15	ø	ø	ø	ø	2	ø	ø	2	ø	ø	1	1	7	8	26	41	59
B75	10	6	7	23	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	5	6	24	35	59
B76	14	6	11	31	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	6	21	28	59
B77	15	11	26	52	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	5	6	59
B106	15	11	32	58	ø	1	ø	1	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B110	15	10	28	53	ø	2	4	6	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B111	15	11	25	51	ø	ø	3	3	ø	ø	4	4	ø	ø	ø	ø	ø	1	ø	1	59
B129	15	11	23	49	ø	1	9	10	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
B131	15	11	26	52	ø	1	5	6	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	59
B134	15	10	27	52	ø	1	4	5	ø	ø	ø	ø	ø	ø	1	1	ø	1	ø	1	59
B157	15	11	31	57	ø	1	ø	1	ø	ø	1	1	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	ø	59
Orot	227	152	367	746	ø	10	38	48	1	2	8	11	ø	ø	5	5	26	40	127	193	1003

9. taula. Objektu zuzenaren pertsona komunztadura.

Oro har objektu zuzenaren pertsona komunztadura atxikitzen da. Adizkera jokatua duten 810 erantzunetan, objektuarekin pertsona komunztadurarik erakusten ez duten aditzak 15 dira, alegia %2 (16/810). Emaizta horren arabera, objektu zuzenaren pertsona komunztadura franko indartsua da.

Hurbilagotik behaturik, haatik, badaiteke puntu horretan aldaketa edo ahultze baten lehen seinaleak agertzen hasiak izatea. Alabaina, adinekoen taldean, behin bakarrik gertatzen da komunztadura araua haustea (PIEGE, B74: *Leeno, nai zinuen nik zu ikus nezan egun guziz*), eta bi aldiz, 40-60 urtekoen taldean (KADO, B70: *Leen ikusten zituen egunero*;²⁴ BERLA, B72: *Beñatek nai du zu ikus dezadan*). Beraz, komunztadura urratze gehienak (13/16) gazteen taldean gertatzen dira. Urratze horiek azken kasu honetan 8 aldiz agertzen dira objektua absolutiboan izanik, eta 5 aldiz datiboan izanik. Horiek hola, ezin dugu ahaztu bazterreko gertakariekin ari garela, gazteen taldean ere adizkera jokaturik eman diren 418 erantzunetan komunztadura hori egiten ez dutenek doi-doia %3 gainditzen dute (13/418); gutxi dira, beraz.

Objektuaren komunztadura absolutiboa da gehienetan, eta horrek esan nahi du paradigma monotrantsitiboetako adizkerak baliatzen direla, objektuari dagokion pertsona indizea aurrizkia izanik. Halere, puntu honetako aldaketa garbiki agertzen hasia da, Hegoaldeko euskalkiek ekarria seguraz ere. Adinekoen taldean, objektuaren indizea

²⁴ Ez du iduri kasu honetan 'zituen' 'zi(n)tu(d)an' baten gauzape fonetiko den, baina duda gelditzen da halere.

absolutiboa da beti adizkeran, salbuespenik gabe; baina, 40-60 urtekoen taldean, adizkera jokatu duten 164 erantzunetatik 10 kasutan agertzen da indize datiboa, absolutiboaren ordeztu (%6), bi hiztunetan (RAZI, KOBA) bereziki.²⁵ Guztiz adierazgarria da orduan euskara batuko formak agertzen baitira bereziki, konbergentzia fenomeno baten ondorioa izan daitekeelako hipotesia indartuz; 7 erantzunetan ikus daiteke hori:

B70: *ikusten nizun* (KOBA)

B71: *ezagutzen zenidan* (RAZI)

B106: *ikusten aal dizuet* (KOBA)

B110: *ikusten al nizun* (KOBA, MOBA)

B129: *komidatuko zenidan* (RAZI)

B131: *komitatuko nizuke* (RAZI)

B134: *konbidatu bazenidan* (RAZI)

Gazteen taldean are gehiago hedatzen da kontua. Alabaina, 43 erantzunetan agertzen da objektu zuzena datiboan, hau da, %10etan gutxi gorabehera (43/418). Datiboaren alderako lerratze hori talde horretan, ez-oraineko paradigmetan bereziki agertzen da: B70 (x4), B72 (x7), B110 (x4), B111 (x3), B129 (x9), B131 (x5), B134 (x4), orainaldian ere batzuetan aurkitzen bada ere, adibidez EHENek, B69an: *ezagutzen didazu*. Dena dela, datibatzea aditz komunztaduratik kanpo ere gertatzen da zenbaitetan (5 aldiz), aditz morfologia segurtatugabea duten hiztunetan oroz gainetik:

B69: *Eni ezagützen düzie* (PEOLO)

B71: *Ongi ezagutzen zinuen niri* (LAUSA)

B73: *Ene lagünak nahi likezü eni ezagütü züdan* (XILA)

B74: *Leen nahiago zünin zui ikhus nezan egün oz* (XILA)

B134: *Bihar eni khümitatzen badüzü holako ostatilat* (PEOLO)

²⁵ Morfologikoki komunztadura hibridoak dituzten adizkerak ez ditugu objektu datiboduntzat hartu. Adibidez, PIMUS B73: *Ene lagünek nahi dizie zük ezagüt nekadaziün*, non lehen pertsona, biak, aurrizki (*n-*, objektu absolutiboak bezala) eta atzizki (*-da*, objektu datiboak bezala) den, komunztadura absolutiboduna dela kontsideratu dugu. Ikus, halaber, MOBA B69: *ezagutzen nautazu*.

Zerrendatze horrek ez du irakurlea engainatu behar: holako erantzunak, edo objektua absolutiboan izanik diren araberakoak, gazteen taldean ere, bazterrekoak dira, lehen esan dugun bezala, mota horretako adizkerak dituzten erantzunetan %3 edo.

4. Hondar hitza, bilduma gisa

Artikulu honen helburua NORANTZ datu-basearen aurkezpena egitea izan da, bidenabar haren bidez iker zitekeen gramatika puntu bat —pertsona komunztadura— testuinguru adierazgarrietan aztertuz. Iparraldeko egoera soziolinguistikoaren ezaugarri nagusiak gogoratu ondoan, datu-basea sortzeko izan diren arrazoiak eta haren moldatzeko erabili den metodologia azaldu ditugu, baita datu-basearen mugak nabarmendu, eta datuak biltzerakoan, baliatzerakoan eta aztertzerakoan kontuan hartu beharreko oztopo batzuk agerian eman ere. Datu-basearen helburua da Iparraldeko egungo euskal hiztun arrunten gramatika jokabide nagusiak biltzea, halako irudi bat izateko, euskararen gizarte egoera guztiz gaizki den eskualde horretako egun orozko euskara biziaz, edo, hobeki adierazteko, honen oinarrian diren gramatikazko joera desberdinez. Hiztunak aukeratzeko moldatu dugun hiztun tipologia, adina, bizilekua eta euskarazko eskolatzea (Iparraldeko eskola ingurumenean, gazteen taldean bakarrik balia zitekeena) irizpidetzat harturik osatu dugu, orotara 59 hiztun galdezkaturik. Inkestak egin eta, uste dugu irizpide hauek egiazki baliagarri direla: adina eta euskarazko eskolabidea oroz gainetik, ezen, euskararen galtzea herri txikienetara hedatzearekin, badirudi bizilekua gero eta faktore ahulagoa dela. Hiztunen sexua zehaztu baita datu-basean, sexua ere irizpide gisa baliatzeko bidea eskaintzen du datu-baseak, baina ez dugu uste eraginik duen elementua denik.

Galdetegi osoak 568 galderaren bidez morfologia funtzionaleko atal gehienak estaltzen ditu, puntu bakoitza azalean bederen hunkiz (ikus 3. taula gorago). Galdera gehienetan (702) frantsesez esandako perpaus bat euskaraz adierazteko eskatu zaio hiztunari, buruz buruan ahoz egin galdeketa batean, galdera bakoitzak gramatikako ezaugarri zehatz bat xedatzen zuelarik, eta erantzuna grabaturik. Fonologiari dagokionez, frantsesarekiko kontaktutik sor daitezkeen eraginak gogoan edukiz 178 galdera egin dira. Datuak elizitzeko teknikari dagokionez, bat-bateko itzulpena baliatzea izan da gure aukera nagusia. Ohigabekoa da elizitabide hau euskalaritzan, eta ez dugu gordeko proiektua hasi aurretik, inkesta pilotoak egin arte bereziki, zalantzak ere izan genituela egingarri ote zen gisa horretako inkesta lana, holako lanetan batere ohiturarik ez duten hiztunekin bereziki.

Ezen, euskaldun arruntak dira galdekatu izan diren hiztunak, askotan euskaraz osoki alfabetatu gabeak, eta itzulpen zereginetan sekula ez ibiliak. Galdekatu diren hiztun guztiak gai ziren euskaraz normalki eguneroko solasetan komunikatzeko, eta euskaraz egin dira elkarriketa guztiak. Halere, erantzunak entzutean ohar daitekeen bezala, hiztun guztiek ez dute erraztasun edo gaitasun bera, eta nabari da zenbait galderatan batzuen nekezia. Argi da inkestabide horrek badituela bere mugak eta makurrak, partez behintzat seinalatu ditugunak; kontuan hartu beharko ditu datu haietaz baliatu nahiko duen ikertzaileak, datu-baseak joerak bereziki erakusteko balio duela gogoan atxikiz.

Datu-basea anitz fenomenoren erakusgarri da: oso nabarmena da, adibidez, murgiltze sisteman eskolatu diren gazteen kasuan bereziki, euskara estandarraren eragina, izan dadin euskara batuari dagokiona, edo gaur egun bereziki indarrik gehienarekin agertzen den mintzamoldeari dagokiona. Konbergentzia fenomeno horien ondoan, beste batzuk badira, berezko bilakaera baten ondorio bide direnak. Adibidez, *beri* izenordain datibo indartua, murgiltze sisteman ibili gazteen artean agertzen hasia dena, eta, itxura guztien arabera, tokiko berrikuntza bati dagokiona. Beste kasu anitzetan zail da adin taldeen artean ageri den bilakaera berezkoa, edo konbergentziak, edo biek, ekarria den jakitea, hala nola perpaus osagarri subjuntiboetan aditz jokatuabeak gazteen taldean zaharren taldean baino gehiago erabiliak izatea.

Toki eskasez, ez ditugu datu horiek ekarri artikulu honetara, eta gramatika ezaugarri abstraktuago bati so egin diogu, datu-baseak holako datuak ere aztertzeke balio zuenetz ikusteko: pertsona komunztadura anizkuna Iparraldeko egungo hiztunetan zenbateraino gauzatzen den behatu nahi izan dugu bereziki, euskararen morfojoskeraren ezaugarri nabarmena delako eta euskararen historian euskalkien arabera molde desberdinetan gauzatu dena. Datuak aski garbiak dira gure ustez: aditz iragankorretan, bai monotrantsitiboetan eta bai ditrantsitiboetan, pertsona komunztadura anizkuna obratzen dute hiztunek, hala komunztadura ergatiboa nola absolutiboa, eta baita, neurri apalago batean komunztadura datiboa ere. Komunztadura ergatiboaren kasuan oso huts gutxi aurkitu dugu. Agertzen diren hutsek berek ere ez dute hainbeste komunztadurarik eza erakusten, bai gehiago, gure ustetan, zenbait paradigmatako adizkerak osatzeko hiztun batzuek duten zailtasuna. Partez naturaltasunik gabeko elizitabideak esplikatu dezake

nekezia hori, baina, datuak orokorrean ikusirik, iruditzen zaigu zerbait sakonago ere badela (beste lan batean ikertzekoa duguna).

Objektu zuzenaren pertsona komunztaduraren datuak ere, aurrekoen itxuran agertzen zaizkigu, gauzak doi bat korapilatzen badira ere, hiztun gazte zenbaitek, batzuetan objektu zuzena aditzean datibatzeke duten joeragatik (ikus bereziki B129 galdera). Beste ikerketa sakonago bat egin beharko da, holakoetan, datibatzea aditz paradigma batzuen menderatzeko nekeziaren ondorioa den (badirudi erraztasun gutxiena duten lekukoetan bereziki agertzen dela), edo argumentua bera den datibo gisa tratatzen jakiteko. Edozein gisaz, komunztadura absolutiboa edo datiboa erabiliz, oso modu erregularrean egiten da objektu zuzenarekiko komunztadura, hutsen kopuruak %1,5eko marra ez baitu gainditzen, hots, inkesta baldintzak kontuan izanik, gure ustez, deusetan adierazgarria ez den proportzio bat.

Komunztadura datiboaren datuak nahasiago dira, eta aditz motak eta komunztadura motak bereizi behar dira. Aditz ditransitiboekin bi fenomeno, elkarren aurkakoak, gurutzatzen dira: lehena Iparraldeko ohiko euskalki gehienen ezaugarri bati dagokio: aditz ditransitiboetako komunztadura datiboa ez da nahitaezkoa haietan; bigarrena, euskara batuaren arau bati dagokio: zeharkako objektuarekiko komunztadura datiboa nahitaezkoa da. Ondorioa da aditz horietan aditz komunztadura maizago egiten dela gazteen taldean (%85) adinekoen taldean (%75) baino. NOR-NORI saileko aditzen ondorioak guztiz bestelakoak dira. NORANTZEK datuak biltzeko ‘approcher’ eta ‘parler’ aditzak baliatu ditu eta bi aditz horiekin datu desberdinak bildu. Lehenbiziko aditzarekin hiztun gehien-gehienek baztertu dute datiboa erabiltzea (lokatibo biziduna markatzeko), eta beraz ondoriorik ezin atera daiteke komunztadura datiboari begira. ‘Parler’ aditzaz baliatzen diren elizitazio perpausen erantzunetan, berriz, datiboa erabili dute anitz hiztunek. Haatik, aditz ditransitiboetan ez bezala, holakoetan komunztadura datiborik gabeko jokabidea nagusitzen da adin talde guztietan. Bestalde, ‘mintzatu’ aditza erabili duten anitz hiztunek, bi argumentuekiko komunztadura erakusteko, aditzaren erregimena aldatu dute, edo NORK-NORI aditz gisa jokaturik, edo NOR-NORK aditz gisa trataturik. Azkenean guztiz datu nahasiak (eta kasuka harturik fidagarritasun gutxikoak) gelditzen dira, ikerketa berezia merezi luketenak. Hondarrean, datibo esperientzialaria duten NOR-NORI aditzetako komunztadura datuak aurkeztu ditugu. Hiztunek ongi menderatzen dituzten

paradigmatan erregulariki gauzatzen dute komunztadura datiboa (%90). Haatik, alegialdietako eta subjuntiboko formetan zailtasunak dituzte hiztun askok komunztadura paradigma egokietan gauzatzeko, gazteen taldean bereziki, baina ez haien artean bakarrik.

Ez dugu uste inork ustekabekorik aurkituko duen eskaini ditugun datu orokorretan. Orogen buru, ohiko euskalkietan diren joera batzuk baiestera heldu dira aurkeztu ditugun datuak. Haatik, NORANTZeko datuak erabilirik oinarri enpiriko sendo bat ematen zaio Iparraldeko euskaldunen pertsona komunztadurako jokabideen azterketari, barneko joerak eta aldaguneak ikusteko aukera emanez. Esperantza dugu holako kasua erabilirik, erakutsi dugula, egungo hizkerak eta aldaketak aztertzen dituzten ikertzaileentzat, baita euskararen irakaskintzaz arduratzen direnentzat ere, tresna baliosa izan daitekeela NORANTZ datu-basea.

LEKUKOAREN FITXA

Kodea:

Sorteguna:

Sexua: ☐ emaztea ☐ gizona

Ofizioa:

Adina: ☐ -30 ☐ 40-60 ☐ +70

- 30 Bizitoki nagusia gaztetan:

Hiria edo kantonamendua:

☐ hiria ☐ hirixka ☐ baserria

- 30 Bizitoki nagusia adin betean: ☐ E. Herria

☐ E. Herritik kanpo

Hiria edo kantonamendua:

☐ hiria ☐ hirixka ☐ baserria

+ 40 Bizitoki nagusia gaztetan:

Hiria edo kantonamendua:

☐ hiria ☐ hirixka

+ 40 Bizitoki nagusia adin betean: ☐ E. Herria

☐ E. Herritik kanpo

Hiria edo kantonamendua:

☐ hiria ☐ hirixka

Eskola maila: ☐ 16 urte arte ☐ 16-20 urte arte ☐ +20

Ama euskalduna: ☐ bai ☐ ez

Aita euskalduna: ☐ bai ☐ ez

Bizilaguna euskalduna: ☐ bai ☐ ez

Haurrak euskaldunak: ☐ bai ☐ ez

Lehen mintzaira: ☐ euskara ☐ erdara ☐ biak

Etxeko mintzaira gaztean: ☐ euskara ☐ erdara ☐ biak

Etxeko mintzaira adin betean: ☐ euskara ☐ erdara ☐ biak

Laneko mintzaira:	<input type="checkbox"/> euskara	<input type="checkbox"/> erdara	<input type="checkbox"/> biak
Euskara eskolako hizkuntza:	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
		<input type="checkbox"/> gai bezala	<input type="checkbox"/> murgiltze sisteman
Euskara katiximako hizkuntza:	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Euskara deusetarik ikasia: Zer adinetan?	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Euskara berreskuratua: Zer adinetan?	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Badakizu irakurtzen euskaraz?	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Usaia baduzu irakurtzeko?	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Idazten euskaraz?	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Usaia baduzu idazteko?	<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai	
Hizkuntza horiek ba ote dakizkizu?	<input type="checkbox"/> Espainola	<input type="checkbox"/> Gaskoina	<input type="checkbox"/> Ingelesa <input type="checkbox"/> besterik
Usaia baduzu irratia euskaraz entzuteko?		<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai
Usaia baduzu ETB ikusteko?		<input type="checkbox"/> ez	<input type="checkbox"/> bai

1. eranskina. Lekukoaren fitxa.

Erreferentziak

- Allières, Jacques. 1985. *Statut et limites du polimorfisme morphologique. Le verbe basque dans la Grammaire cantabrique basque de Pierre d'Urte (1712)*. In J. L. Melena (arg.): 899-919.
- Artiagoitia, Xabier. 2000. *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Gasteiz: EHU-Arabako Foru Aldundia.
- Backus, Ad. 2008. *Data Banks and Corpora*. In Wei & Moyer (arg.): 232-248.
- Baude, O. et al. 2006. *Corpus oraux. Guide des bonnes pratiques*. Paris: CNRS éditions.
- Clemente, Ignasi. 2008. *Recording Audio and Video*. In Wei & Moyer (arg.): 177-191.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2008. "Hizkuntza-politika Ipar Euskal Herrian: nondik nora? Ibilbidearen azterketa", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 67, 79-102.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2009a. "Errealitate soziolinguistikoaren deskribapena eta irudikatzea. Hiru aldagaiekiko modeloak", *ASJU XLIII*, 193-204.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2009b. "Euskara eta legeria Ipar Euskal Herrian: Gizarte elebidun baterantz aukerak eta mugak", *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 41-55.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2010a. "Frantziako estatua eta eskualdetako hizkuntzak: 1990-2010", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 87-99.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2010b. "État des lieux de l'enseignement scolaire du basque en France", *Les langues modernes, Revue de l'APLV* 4, 32-37.
- Eusko Jaurlaritza. 2008. *IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Iparralde*. 2006. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fishman, J.A. 2001. *Can Threatened Languages be saved? Reversing language shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Multilingual Matters. England: Clevedon.
- Lanza, Elizabeth. 2008. *Selecting Individuals, Groups, and Sites*. In Wei & Moyer (arg.): 73-87.
- Larramendi, M. 1729. *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*. Salamanca : A. J. Villagorde. Berrargit. Faksimile edizioa. Donostia : Hordago, 1979.
- Legarra, Jose Maria & Baxok, Erramun. 2005. "Language policy and planning of the status of Basque, II: Navarre and the Northern Basque Country", *International Journal of the Sociology of Language* 174, 25-38.
- Melena, Jose L. (arg.). 1985. *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Vitoria-Gasteiz: EHU.

- Rietveld, T. and R. van Hout. 1993. *Statistical Techniques for the Study of Language and Language Behaviour*. London: Mouton de Gruyter.
- Thomason, Sarah G. 2001. *Language Contact. An introduction*. Edinburgo: Edinburgh University Press.
- Turell, Maria Teresa & Melissa Moyer. 2008. *Transcription*. In Wei & Moyer (arg.): 192-213.
- Urteaga, Eguzki. 2006. *La langue basque dans tous ses états. Sociolinguistique du Pays Basque*. Paris: L'Harmattan.
- Wei, Li & Melissa Moyer. 2008. *The Blackwell guide to research methods in Bilingualism and Multilingualism*. Blackwell.
- Weinreich, U. 1953. *Languages in Contact: Findings and Problems*. New York.
- Yrizar, P. 1999. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental*. Iruñea: Euskaltzaindia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.